

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2014

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@euskadi.eus

[945-01 90 77](tel:945-01-90-77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurkitzaren Ogasun eta Finantza Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526


AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	8
Munduko ekonomiaren bilakaera	8
Analisia herrialdeka	11
Espainiako ekonomia	14
EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	16
EKOIZPEN ARLOAK.....	16
Sarrera	16
Lehen arloa	17
Industria	18
Eraikuntza	22
Zerbitzuak	24
ESKARIA	26
Sarrera	26
Gastua azken kontsumoan	27
Kapital eraketa gordina	28
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	29
LAN MERKATUA	36
PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	42
ARLO PUBLIKOA	49
FINANTZA ARLOA	52

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

Bi urtez jarraian beherakada garrantzitsuak jaso ondoren, 2014an EAEko ekonomiak %1,2 areagotu zuen barne produktu gordina termino errealean. Datu historikoekin alderatuta gehikuntza tasa hori apala den arren, azpimarratu behar da 2014an lortutako tasa azken sei ekitaldietako altuena dela. Hazkunde horren ezaugarririk behinenetako bat barne eskariak ekonomia bultzatzeko orduan bereganatu duen papera da. Izan ere, aurreko bost urtekoan kanpo eskaria izan zen EAEko ekoizpen ehunaren motor garrantzitsua, baina 2014an barne eskariak txanda hartu dio. Zehazkiago, barne eskaria %1,1 hazi zen urteko batez bestekoan eta BPGaren gehikuntza ia osoa osagai horri zor zaio, kanpo arloak jarrera neutroa izan zuen bitartean, nahiz eta esportazioek aurreko urteetako baino bizitasun handiagoa erakutsi zuten, autonomia erkidegotik kanpo erositakoa ere nabarmen hazi zelako, esportazioen ekarpena konpentsatuz. Suspertzeko prozesua gero eta gehiago areagotu zen hiruhileko batetik hurrengora. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoan urte arteko tasa %0,5 izan zen, baina azken hiruhilekoan gehikuntza %1,9ra igoa zen, 2015erako emaitza ona iragarritz. Ingurune ekonomiekin alderatuta, EAEko PBGaren hazkundera (%1,2) ez da gehiegi urruntzen Europar Batasunak (%1,3) eta Espainiak (%1,4) lortu zuten emaitzatik, eta hiru hamarretan gainditu zuen Euroguneko tasa (%0,9).

EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

Oro har, munduko ekonomiak aurreko urteetako hazkunde erritmoari eutsi zion eta, hirugarren urtez jarraian, %3,4 hazi zen. Balio hori hurbil dago batez besteko historikotik, baina krisi aurreko urteetan eskuratu ziren %5,0tik gorako erritmo bizien aldean, moteltze garbia erakusten du. Beste urte batez, garapen bidean dauden herrialdeek eman zioten ekarpen handiena munduko hazkundeari, baina herrialde batzuetan erritmo galera txikia hauteman zen, ekonomia garatuek bizi zuten sendotzeak konpentsatu zutena. Zehazkiago adierazita, azken herrialde horiek %1,8 hazi ziren 2014an, hots, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago, baina azaleratzen ari diren ekonomiek %4,6ra leundu zuten beren bultzada, azken bost urteko datu apalena delarik. Txina (%7,4) da moteltze garbi horren erantzuleetako bat, hazkunde eredia aldatzen ari delako eta esportazioetan oinarritu beharrean, barne eskaria areagotzen duen beste eredu bat ezarri nahi duelako. Orobat, Errusiak (%0,6) eta Brasilek (%0,1) ezohiko emaitza txikiak jaso zituzten.

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia aurreratuak	43,1	1,8	0,8	Garatu gabeak	56,9	4,6	2,6
AEB	16,1	2,4	0,4	Txina	16,3	7,4	1,2
Eurogunea	12,1	0,9	0,1	India	6,8	7,2	0,5
Japonia	4,4	-0,1	0,0	Errusia	3,3	0,6	0,0
Erresuma Batua	2,4	2,8	0,1	Brasil	3,0	0,1	0,0
Kanada	1,5	2,5	0,0	Mexiko	2,0	2,1	0,1
Besteak	6,6	2,8	0,2	Besteak	25,5	3,3	0,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Ekonomia garatuen bilakaerak oso diferentzia esanguratsuak erakutsi zituen 2014an. Mutur batean, AEBek (%2,4) hazkunde sendo eta orekatuko irudia eskaini zuten berriro, zeinean barne eskari pribatuaren osagai guztiak indartsu hazi baitziren. Beste muturrean, Japoniak jaitziera txikia jaso zuen (%-0,1), ustez iragankorra izango dena, BEZaren igoerak eragin zuen kontsumoaren uzkurdurak baldintzatuta. Bertako gobernuak pizgarri fiskalak eta monetarioak martxan jarri izanak eta zergaren eragina desagertu izanak pentsarazten dute ekonomia hori aurten suspertuko dela.

Aipatu berri diren bi herrialde handi horiekin alderatuta, tarteko toki batean kokatu zen Europako ekonomia. Oro har, Europar Batasuna %1,3 hazi zen 2014an, aurreko bi urteen aldean susperraldi garrantzitsuko bilakaera eskainiz. Beste urte batez, euroa dibisa propiotzat hartu duten herrialdeek beren diruari atxiki ziotenek baino emaitza apalagoa jaso zuten. Esate baterako, Eurogunea %0,9 hazi zen, baina Erresuma Batuak (%2,8) eta Suediak (%2,1) nabarmen gainditu zuten zenbaki hori. Euroguneko herrialde nagusien artean, Alemaniaren (%1,6) eta Espainiaren (%1,4) bultzada nabarmendu zen. Aitzitik, Frantzia (%0,4) oso gutxi hazi zen eta Italiak, berriz, atzera egin zuen (%-0,4). Aurreko urteetan zailtasun handiak pairatu zituzten periferiako beste herrialde batzuek ere hazkunde tasa positiboak lortu zituzten, hala nola Irlandak (%4,8), Portugalek (%0,9) eta Greziak (%0,8).

BPG ERREALAREN BILAKAERA


Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Munduko ekonomia	0,0	5,4	4,2	3,4	3,4	3,4
AEB	-2,8	2,5	1,6	2,3	2,2	2,4
Japonia	-5,5	4,7	-0,5	1,8	1,6	-0,1
Txina	9,2	10,4	9,3	7,7	7,8	7,4
Europar Batasuna	-4,4	2,1	1,7	-0,5	0,0	1,3
- Alemania	-5,6	4,1	3,6	0,4	0,1	1,6
- Frantzia	-2,9	2,0	2,1	0,3	0,3	0,4
- Erresuma Batua	-4,3	1,9	1,6	0,7	1,7	2,8
- Italia	-5,5	1,7	0,6	-2,8	-1,7	-0,4
- Espainia	-3,6	0,0	-0,6	-2,1	-1,2	1,4
- EAE	-4,0	0,6	0,2	-2,0	-1,7	1,2

Iturria: NDF (munduko ekonomia, Txina eta Japonia), Eurostat eta Eustat (EAE).

Dagoeneko adierazi denez, EAEk Europar Batasunaren antzeko erritmoa izan zuen 2014an eta Eurogunekoa gainditu zuen. EAEko gehikuntza esanguratsua da abiapuntua negatiboagoa zelako, aurreko bi urteetan barne produktu gordinak jaitsiera jarraituak bilduz. Beraz, 2013ko eta 2014ko emaitzen artean ia hiru puntuko hobekuntza eskuratu zuen EAEk, baina Europar Batasunaren eta Eurogunearen hobekuntza 1,3 puntura mugatu zen. Hala eta guztiz ere, termino errealean, Euskadi 2008an lortu zuen mailatik, hots ekonomia krisia hasi aurreko

mailatik, oraindik 5,6 puntu beherago dago eta ekitaldi batzuk beharko dira BPGaren maila hura berreskuratzeko.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilita.


EAEko ekonomiak 2014an bizi zuen suspertzeko prozesuarekin batera enplegu sorrera txiki bat (%0,3) etorri zen, aurreko urteetako galerari amaiera emateko balio zuena. BPGaren eta enpleguaren konbinaketak %0,9an kokatu zuen lan faktorearen itxurazko produktibitatea. Tasa hori aurreko bi urteetako baino txikiagoa da, baina hurbil dago 1995etik batez beste jaso den %1,1 hartatik. Ohikoa denez, eraginkortasunaren hobekuntza handienak industrian (%2,9) eta lehen arloan (%5,3) eskuratu ziren. Aitzitik, zerbitzuek %0,4 bakarrik hobetu zuten produktibitatea, sektore horretako ohiko balioetatik hurbil dagoen tasa bat delarik. Azkenik, eraikuntzak aldagai hori zertxobait gutxitu zuen, 2013ko bultzada sendoaren ondoren.

EAEko barne produktu gordinaren gehikuntza barne eskariaren sendotasunean oinarritu zen, bost urtez jarraian behera egin ondoren, 2013ko emaitzaren aldean %1,1 hazi zelako. Kanpo arloaren portaera guztiz kontrakoa izan zen, eta hainbat urtez ekonomiaren bultzatzaile nagusia izan eta gero, 2014an BPGaren hazkundeari egin zion ekarpena ia hutsala izan zen. Horrek ez du esan nahi kanpo merkataritza ahuldu zenik. Alderantziz, hala esportazioak (%3,4) nola inportazioak (%3,2) aurreko urtean baino gehiago hazi ziren eta nazioarteko


merkataritza baino gehiago areagotu ziren, baina esportazioen ekarpen positiboa inportazioen kenketak konpentsatu zuen.

EAEko BPGari eginiko ekarpenak

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren barruan, azken kontsumoaren hazkundera eman zion bultzada ekonomiari, %1,4 hazi baitzen 2014an, kontsumo pribatuaren portaera biziari esker (%1,6). Portaera horren atzean zeuden faktoreen artean, igurikimene hobekuntza, inflazio apala, kreditua lortzeko erraztasun handiagoa, zuhurtziaz aurreztutakoaren jaitsiera eta enpleguaren gehikuntza aipatu behar dira. Beste aldetik, kapital eraketa gordina egonkortu zen (%0,0), baina ekipamendurako ondasunen osagaia nabarmen hazi zen (%2,2), gainontzeko inbertsioak berriro behera egin zuen bitartean (%-1,0).

Hazkundera ekonomia arloen arabera aztertzen denean, agerian gelditzen da oreka bat egon zela EAEko ekonomiaren bi jardura multzo nagusien artean: industria eta zerbitzuak. Hain zuzen ere, industriak %1,0 handitu zuen bere balio erantsia 2014an eta zerbitzuek %1,5ean kokatu zuten beren aldakuntza tasa. Bi kasuetan, amaiera eman zitzaion balio erantsia murrizteko bi urteko epealdi bati. Orobat, lehen arloaren emaitza ere ona izan zen, %5,5 hazi zelako. Aitzitik, eraikuntzak zazpigarren urtez jarraian balio erantsia gutxitu zuen, nahiz eta beherakada erritmoa leundu zuen, %-3,0ra arte, aipatu den epealdi horretako tasa txikiena delarik. Sektore

horretan egiten ari den doikuntza biziaren ondorioz, eraikuntza balio erantsi guztiaren %6,3 zen 2014an, 2007an %10,6 izan zen bitartean.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Barneko azken kontsumoa	-1,7	1,2	-0,9	-1,4	-1,1	1,4
Familien kontsumoko gastua	-3,5	0,9	-1,3	-1,6	-1,0	1,6
Herri administrazioen kontsumoa	4,9	2,2	0,7	-0,9	-1,4	0,9
Kapital eraketa gordina	-14,0	-3,9	-1,3	-7,0	-4,6	0,0
Ekipamenduko ondasunak	-23,3	-2,5	3,7	-4,9	-3,1	2,2
Gainontzekoa	-11,3	-4,4	-3,1	-7,8	-5,3	-1,0
Barne eskaria	-5,3	-0,1	-1,0	-2,8	-1,9	1,1
Esportazioak	-13,4	7,8	1,4	-4,7	0,9	3,4
Inportazioak	-14,2	5,5	-0,6	-5,7	0,4	3,2
BPG (m.p.)	-4,0	0,6	0,2	-2,0	-1,7	1,2
Lehen arloa	-4,8	20,8	7,6	10,9	-5,5	5,5
Industria	-12,9	2,5	1,3	-5,2	-2,6	1,0
Eraikuntza	-7,4	-7,9	-7,6	-7,6	-4,7	-3,0
Zerbitzuak	-0,1	0,7	0,8	-0,4	-0,9	1,5
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-2,8	0,4	-0,8	-2,5	-1,6	1,6
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,4	3,9	3,4	0,4	0,1	2,2
Gainontzeko zerbitzuak	-0,1	-0,8	0,6	0,5	-0,9	1,1
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	-4,4	0,5	0,3	-2,1	-1,6	1,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-0,1	1,9	-0,1	-1,1	-2,7	1,7

Iturria: Eustat.

Zerbitzuetako adar guztiek gehikuntza tasa esanguratsuak jaso zituzten balio erantsian. Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldeak %2,2ko hazkunde tasa lortu zuen, eta balio erantsia inoiz murriztu ez duen bakarra da. Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren atala kaltetuena izan zen aurreko hiru urteetan, baina egoera irauli zuen eta 2013ko %-1,6 hartatik 2014ko %1,6ra igaro zen. Barne eskariaren sendotasunak eta turismo arloak bizi zuen urte onak lagundu zuten talde horren emaitza

lortzen. Azkenik, gainontzeko zerbitzuen aldakuntza tasa %1,1ean kokatu zen, 2013ko galera berreskuratuz.

Barne kontsumoaren gorakadak ez zuen tentsiorik eragin prezioetan, eta BPGaren deflatoea %0,1 baino ez zen hazi 2014an. Beraz, inflazio apaleko garaiak lau urte iraun du dagoeneko. Bai barruko prezioek bai kanpokoek apaltze handia erakutsi zuten. Barne eskariaren deflatoea ez zen aldatu 2013ko datuaren aldean eta esportazioen zein inportazioen adierazleak negatiboak izan ziren. Beste aldetik, kontsumoko prezioak, urteko batez bestekoan, %0,2 baino ez ziren hazi, eta lehenengo aldiz serie historiko osoan KPIaren abenduko tasa balio negatibotan kokatu zen (%-0,7). Nazioarteko merkatuetan petrolioak izan zuen merkatzeak indize orokorraren emaitza baldintzatu zuen, osagai energetikoaren bidez. Orobat, azpiko inflazioak ere oso balio apalak jaso zituen, %2,0ko helburutik urrun. 2015eko lehen hilekoetan, petrolioaren salneurriak gora egin du eta KPI indizeak gutxieneko balioak atzean utzi ditu, baina urte arteko aldakuntza tasak oraindik negatiboak dira.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB28=100)	126,6	123,8	122,8	122,3	121,6
BPG erreala merkatu prezioetan	0,6	0,2	-2,0	-1,7	1,2
Enplegua	-1,3	-0,9	-3,3	-3,0	0,3
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	2,0	1,2	1,4	1,4	0,9
BPG nominala merkatu prezioetan	2,1	0,7	-1,9	-1,0	1,3
BPGaren deflatoea	1,5	0,4	0,1	0,6	0,1
KPI (urteko batez besteak)	1,7	3,1	2,3	1,6	0,2
Kostu guztiak langile bakoitzeko	1,4	0,6	0,7	1,7	-1,0
Langabezia tasa	9,1	10,8	11,8	14,3	14,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2014an, munduko ekonomiak hazkunde erritmoari eutsi zion. Hain zuzen ere, NDFren zenbatespenen arabera, munduko jarduera %3,4 areagotu zen, aurreko bi urteetako tasa bera delarik, eta susperraldia finkatzen ari dela iradokitzen du. Hala eta guztiz ere, ekoizteko ahalmenaren mugek, desoreka makroekonomiko eta finantzarioek, politika ekonomikoen ziurgabetasunak eta arrisku geopolitikoek hazkunde erritmoa apaldu dute, eta azken hogeita bost urteko batez bestekotik (%3,6) hurbil zegoen arren, urrun geratu zen krisiaren aurreko urteetan lortzen zen tasatik (%5,0). Inflazioari dagokionez, lehengaien eta, bereziki, petrolio gordinaren merkatze biziak (dolar estatubatuarretan neurtuta %49 merkatu zen, eta eurotan, berriz, %41) inflazioa moteldu zuen mundu osoan, herrialde batzuetan balio negatiboetara iritsi arte.


EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Mundua	3,4	3,4	3,9	3,5	---	---
ELGE	1,4	1,8	1,4	1,4	7,9	7,3
AEB	2,2	2,4	1,3	1,3	7,4	6,2
Japonia	1,6	-0,1	0,4	2,7	4,0	3,6
EB	0,0	1,3	1,5	0,6	10,9	10,2
Alemania	0,1	1,6	1,6	0,8	5,2	5,0
Frantzia	0,3	0,4	1,0	0,6	10,3	10,2
Erresuma Batua	1,7	2,8	2,6	1,5	7,6	6,1
Italia	-1,7	-0,4	1,3	0,2	12,1	12,7
Espainia	-1,2	1,4	1,5	-0,2	26,1	24,5
Garapen bidean daudenak	5,0	4,6	5,9	5,1	---	---
Asia	7,0	6,8	4,8	3,5	---	---
Txina	7,7	7,4	2,6	2,0	4,1	4,1
Amerika latinoak eta Karibea	2,9	1,3	7,1	---	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	2,9	2,8	4,3	3,8	---	---


Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekonomia garatuak




Azalartzen ari diren ekonomiak



Europar Batasuna



AEB



Iturria: NDF eta Eurostat.

Munduko ekonomia jardueraren bilakaera ezberdina izan zen berriro eremu batzuetan eta besteetan, eta ekonomia eremuen arteko aldeak areagotu ziren, baita eremuen barruan ere. Portaera ezberdin horien atzean, egiturazko faktoreak egon ziren, ziklikoak baino gehiago, finantza merkatuetan, konfiantzan eta politika ekonomikoetan eragina izan zutenak.

Munduko ekonomiak herrialde garatuen gorakadari esker eutsi zion hazkunde erritmoari, zeren eta garapen bidean dauden herrialdeek bizitasuna galdu baitzuten aurreko urteko emaitzarekiko. Halere, azken horiek berriro izan ziren hazkunde globalaren bultzagile nagusiak eta ekonomia jarduera osoaren hiru laurdenak ekarri zituzten. Zehazkiago adierazita, ekonomia aurreratuak %1,8 hazi ziren urteko batez bestean, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago, Erresuma Batuaren bizitasunak eta AEBen sendotasunak bultzatuta. Goranzko joera orokorra izan bazen ere, Europako herrialde batzuetako desorekek alde handiak eragin zituzten hazkunde tasetan. Hori horrela izanda, Europako herrialdeen datuak Irlandako %4,8aren eta Txipreko %-2,3aren artean kokatu ziren.

Azaleratzen ari diren ekonomiek, berriz, berriro moteldu zuten gehikuntza tasa (laugarren aldiz jarraian), eremu horretako herrialdeen artean bizi den dikotomiaren ondorioz. Hain zuzen ere, moteltzeko joera biziagoa izan zen Amerika Latinoko ekonomietan, lehengaien merkatzeak eragin handiagoa izan zuelako –azpimarratzekoak dira Venezuelaren (%-4,0), Brasilen (%0,1) eta Argentinaren (%0,5) emaitza txarrak-, baina baita Errusiaren ingurukoetan ere; azken horien artean, emaitza apalak jaso ziren Ukrainian (%-3,6) eta Errusian bertan (%0,6). Azken herrialde horretan, begi bistakoa da Ukrainiaren gatazkaren ondorioz Errusiari ezarri zitzaizkion zigorren eragina. Lehengaien salneurrien gorabeherak gutxiago kaltetu dituzten garapen bidean dauden beste eskualde batzuetan, emaitzak sendoak izan ziren oraindik, nahiz eta hazkunde erritmoa zertxobait moteldu zen. Hain zuzen ere, Asian, Indiaren bilakaera sendoa (%7,2 hazi zen, 2010etik inoiz lortu duen tasarik gorena) ez zen nahiko izan Txinaren moteltzea konpentsatzeko, azken honek bizitasuna galdu zuelako eta %7,4 hazi zelako. Beraz, eremu osoko ekonomia jarduera bi hamarren moteldu zen, %6,8ra arte. Azaleratzen ari den Europak, berriz, hazkunde mailari eutsi zion 2012ko apaltze biziaren ondoren (2011ko %5,4 hartatik 2012ko %1,3ra igaro zen) eta %2,8aren inguruan egonkortu zen.

Prezioei dagokienez, ekonomia aurreratueta, inflazioaren indize orokorra, bigarren urtez jarraian, %1,4an kokatu zen, inolako aldaketarik gabe. Joera orokorra, petrolioaren eta lehengaien merkatzearen ondorioz, beheranzkoa izan bazen ere, herrialde batzuetan gora egin zuen, hala nola Japonian –BEZaren igoerak eta yenaren ahultasunak produktuak garestitu zituzten-, Kanadan eta Australian. Horrek azaltzen du aipatutako egonkortasuna. Garapen bidean dauden herrialdeetan, moteltzeko joera garbia hauteman zen, elikagaien merkatzeak areagotuta, ekonomia horietako KPI indizeetan pisu handiagoa baitute.

Analisia herrialdeka


Txinaren aldaketa 2014an hasi zen. Garapen eredu esportazioetan eta kostu apaletan oinarritzen zen. Hazkundera zen lehentasuna gainontzeko alderdien gaintetik, baita ingurunearen egoeraren gaintetik ere. Baina eredu hori indarra galtzen ari zela begi bistakoa zen azken bosturtekoan. Hala eta guztiz ere, 2014an Txinako gobernuak eredu jasangarriago baten aldeko hautua egin zuen, barne eskariaren sendotasunean oinarrituko zena. Dena dela, txinatar agintariak kontsumo pribatua eta harekin batera barne eskaria sustatzeko eta suspertzeko ezarri zituzten neurri pizgarriak ez ziren nahiko izan, eta kontsumo pribatuak ez zuen hobekuntza zantzu garbirik erakutsi. Horren ondorioz, Txinako BPGak azken hogeita lau urteko gehikuntza tasarik txikiena jaso zuen. Halere, hazkundera %7,4ra iritsi zen, edozein ekonomia garatutakoa baino askoz ere handiagoa, eta bertako gobernuaren aurreikuspena baino hamarren bakar bat txikiagoa.

AEBetan, eguraldi kaskarrak urte hasierako emaitza lastatu zuen, baina urtea aurrera zihonan heinean, ekonomia jarduerak susperraldi sendoa lortu zuen. Zehatz-mehatz adierazita, kontsumo pribatuak irudi indartsua erakutsi zuen, %2,5eko hazkunde tasa batekin, eta inbertsio pribatua %5,8ra igo zen, talde guztiek egin zuten ekarpen positiboei esker. Aipamen berezia merezi du kontsumo publikoaren bilakaerak, hazkunde tasa txikia jaso zuen arren, hiru urtez jarraian murrizketak bildu ondoren gehikuntza positiboa (%0,4) berreskuratu zuelako. Dolarraren sendotasunak kalte egin zien esportazioei eta inportazioak bultzatu zituen. Horren ondorioz, kanpo saldoak bi hamarren kendu zizkion hazkunderari. Aurreko guztiarengatik, BPG estatubatuarra %2,4an kokatu zen, 2013an jaso zuen balioaren bi hamarren gorago eta 2012koaren hamarren bat gorago.


Lan merkatuari dagokionez, AEBek ia 2,95 milioi lanpostu sortu zituzten 2014an. Kopuru hori 1999. urtetik inoiz lortu den enplegu sorrera handiena da. Hain zuzen ere, 2014an, batez beste, 246.000 lanpostu sortu ziren hileko bakoitzean. Horrelako zenbakirik ez da ikusi azken bi hamarkadetan. Halaber, 2014ko abendua arte, estatubatuar ekonomiak 58 hilekoz jarraian sortu du enplegua, inoizko epealdi luzeena delarik. Ia bost urteko epealdi horretan 11,2 milioi lanpostu sortu zituen. Enpleguaren gehikuntza iraunkor horri esker, langabezia tasa %6,2ra jaitsi zen urteko batez bestekoan, 2008tik jaso den apalena baita. Prezioen bilakaerari dagokionez, KPI indizea %1,3an kokatu zen egonkor, Fed-ek ezarri zuen %2,0ko helburuaren oso azpitik.

BPGaren bilakaera zenbait herrialdetan
Urte arteko aldakuntza tasak


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako Estatistika Erakunde Nazionala, Japoniako Estatistika Erakundea eta Eurostat.

Japonian, 2014ko bigarren hiruhilekoan aurreikusi zen BEZaren igoerak 2012an hasi zen eta 2013an finkatutzat jo zen susperraldia bertan behera utzi zuen. Izan ere, lehen hiruhilekoan, hazkunde tasa %2,0tik gorakoa izan zen, apirilean indarrean sartu zen BEZaren igoera saihesteko eresketa batzuk aurreratu zirelako. Neurri hori ekonomia sustatzeko eta deflazioa gainditzeko helburua duen Abenomia egitasmoaren barnean hartu zen. Hala ere, ondorengo hiruhilekoetan Japoniak ezin izan zion susperraldiari eutsi. Kontsumo pribatua, bereziki kontsumo iraunkorrena, eta inbertsio pribatua, batez ere egoitzetan eginikoa, murriztu egin ziren, eta bertako gobernuak kontsumo publikoa eta inbertsio publikoa bultzatzeko egin zituen ahaleginek ezin izan zuten jaitsiera hori konpentsatu. Yenak balioa galdu zuen arren eta esportazioak bultzatu zituen arren, kanpo saldoaren ekarpena negatiboa izan zen. Aurreko guztiaren ondorioz, Japoniako BPGa %0,1 jaitsi zen 2014an.

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2013ko apirilean moneta pizgarrien sorta handi bat martxan jarri zen, azken hamabost urtean herrialdeari eragin dion deflazioari amaiera emateko. Japoniako Bankuaren helburua KPIaren gehikuntza tasa 2015ean %2,0aren inguruan kokatzea zen. Hartutako neurri ekonomikoek eta lehengaien garestitzeak –Fukusimako istripuaren ondorioz, 2011ko martxotik zentral nuklearrak itxita daude eta Japoniak hidrokARBURUEN inportazioa areagotu behar izan du argindarraren sorreran duen defizita konpentsatzeko- KPI indizea %2,7ra igoarazi zuten, azken hogeita hiru urteko baliorik gorena delarik, eta ezarri zen helburuaren oso gaintik. Azkenik, langabezia tasak beheranzko joerari jarraipena eman zion eta %3,6ra jaitsi zen, 1997tik inoiz jaso den erregistrorik txikiena baita.

Europar Batasunak, berriz, segida eman zion 2013ko bigarren hiruhilekoan hasi zen ekonomia jardueraren hedaldiari. Errusiarekin daukan gatazka eta Greziako krisi etengabea oztupoak diren arren, kontinente zaharrak gora egin zuen eta %1,3 hazi zen. Barne eskariaren osagai guztiek hamarrenak ekarri zizkieten BPGaren hazkundeari, inbertsioaren bultzadak eta kontsumo pribatuaren egonkortasunak bultzatuta. Aitzitik, kanpo arloak hamarren bat kendu zion hazkundeari. Hazkundearen oinarrian, Erresuma Batua –Frantziaren tokia bereganatu zuen munduko bosgarren potentzia ekonomiko gisa-, Alemania eta Espainia zeuden, kontsumo pribatuaren bilakaera onak lagunduta. Erresuma Batuaren kasuan, inbertsioak ere lagundu zuen hazteko bidean, %7,8 sendo bat areagotu zelako, 1996tik eskuratu duen emaitzarik onena baita. Frantziak ere lagundu zuen eremuko garapenean, %0,4ko tasa batekin, aurreko hiru urteetan izan zuen tasen antzeko emaitza delarik. Kontsumo pribatuaren gorakada txikiak (%0,6) eta bi urtez hazkunde tasa negatibotan murgilduta dagoen inbertsioak azaltzen dute geldialdi hori.

Ekonomia jardueraren hobekuntza horrek bere isla izan zuen lan merkatuan, hain zuzen ere langabezia tasaren bilakaeran, baina beraren egoera oraindik kezkarria da, baita asaldagarria ere herrialde batzuetan, hala nola Grezian (%26,5), Espainian (%24,5), Kroazian (%17,0) eta Txipren (%16,1). Alde positiboan kokatu ziren Alemania (%5,0), hamar urtean langabezia erdira jaitsi baitu, 2014an bi milioi baino zertxobait gehiagora murriztu arte, Austria (%5,6) eta Luxenburgo (%6,0). Aurrekoaren ondorioz, Europar Batasuneko langabezia tasa %10,2ra jaitsi zen, 2013koa baino zazpi hamarren beherago, lanik gabeko lagunen kopurua 24.741.000 pertsonatan utziz. Azkenik, inflazio tasak inoizko maila txikienean (%0,6) jarraitu zuen, %2,0ko erreferentziatik urrun, petrolioaren kotizazioak izan zuen amiltzearen ondorioz. Izan ere, eremuko sei herrialdetan, KPIa balio negatibotan jarri zen, eta gainontzekoetan ez zen %1,5 baino gehiago hazi.

Espainiako ekonomia

2014an zehar, Espainiako ekonomiak 2013ko bigarren erdian hasi zen suspertzeko joera finkatu zuen, finantzazio baldintzen etengabeko hobekuntzaren, konfiantza handiagoaren eta lan merkatuaren hobekuntza mailakatuaren testuinguru batean. Hain zuzen ere, bost urtez jaitsierak eta hazkunde hutsalak jaso ondoren, Espainia %1,4 hazi zen, eta urtebete bakar batean Europar Batasuneko amaierako postuetan egotetik hazkundearen bultzagile nagusietako bat izatera igaro zen. Aurreko urteetan ez bezala, barne eskariak protagonismoa berreskuratu zuen eta BPGaren bultzagile behinena izan zen, kanpo arloak zortzi hamarren kendu zizkiolako jardueraren hazkundeari. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren gehikuntzak espainiar ekonomiaren hazkundera finkatu zuen. Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek egoera hobetu zuten 2013aren aldean, baita eraikuntzak ere, urteko batez bestekoan berriro behera egin zuen arren, urteko azken laurdenean hazkunde positiboa berreskuratu zuelako. Sektore horren hobekuntza hain nabarmena izan da ezen urtebete bakarrean 2013ko %-8,1etik 2014ko %-1,2ra igaro baita.

Ekonomia jardueraren bilakaera ona lan merkatuan islatu zen, eta Espainiak enplegua sortu zuen lehen aldiz bost urteko epealdian. Sektoreen bilakaerarekin bat eginez, adar guztiek hobera egin zuten 2013ko mailaren aldean, eta, horri esker, enplegua %1,2 hazi zen, lanaldi osoko 189.000 lanpostu baliokide sortuz. Hala eta guztiz ere, urrats txiki bat da hori bide luze batean, krisiaren hasierarekin alderatuta, oraindik lanaldi osoko 3,3 milioi lanpostu berreskuratu behar direlako.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010(B)	2011(B)	2012(B)	2013(A)	2014(A)
Azken kontsumoko gastua	-1,7	0,6	-1,6	-3,1	-2,4	1,8
-Familien gastua kontsumoan	-3,7	0,2	-2,0	-3,0	-2,3	2,4
-Administrazioaren gastua kontsumoan	4,1	1,5	-0,3	-3,7	-2,9	0,1
Kapital eraketa gordina	-16,9	-4,9	-6,3	-8,1	-3,8	3,4
Esportazioak	-11,0	9,4	7,4	1,2	4,3	4,2
Inportazioak	-18,3	6,9	-0,8	-6,3	-0,5	7,6
BPG	-3,6	0,0	-0,6	-2,1	-1,2	1,4
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta	-3,6	2,1	4,2	-12,8	15,6	3,3
Erauzketa industriak eta manufaktura industriak	-10,0	3,6	0,1	-3,8	-1,8	1,5
Eraikuntza	-7,6	-14,5	-12,7	-14,3	-8,1	-1,2
Zerbitzuak	-1,0	1,3	1,1	0,2	-1,0	1,6
-Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	-3,7	1,5	1,3	0,4	-0,7	2,8
-Informazioa eta komunikabideak	0,6	3,9	-0,5	2,6	-2,8	1,6
-Finantza eta aseguru jarduerak	-6,1	-3,3	-2,0	-3,4	-7,8	-5,5
-Higiezinen jarduerak	3,4	2,0	3,0	2,4	1,1	2,0
-Jarduera profesionalak	-3,7	-1,4	2,7	-0,5	-1,1	2,6
-Administrazio publ., osasuna eta hezkuntza	2,3	2,4	0,5	-0,6	-1,3	0,5
-Jarduera artistikoak eta olgetak	0,7	1,4	0,8	-0,3	1,5	2,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	-5,9	0,1	-5,2	-4,4	-1,5	0,6
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	-0,3	1,8	3,2	2,4	1,4	-0,2
-Enplegua	-6,1	-2,6	-2,6	-4,4	-3,3	1,2

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE.

Azkenik, erregaien salneurriaren jaitsierak ia osorik baldintzatu zuen inflazioaren bilakaera, 2013ko igoyeraren ondoren. Urteko erdialdetik aurrera, KPIa tasa negatibotan kokatu zen eta urte osoko beherakadarik handiena abenduan jaso zuen. Hileko horretako urte arteko aldakuntza tasa %-1,0 izan zen. Jaitsiera horien ondorioz, urteko inflazioa %-0,2an kokatu zen. Prezioak gehiago jaitsi ziren Espainian Eurogunean baino. Hori dela eta, bi lurraldean arteko inflazio tarteak Espainiaren aldekoa izan zen eta 0,8 puntutara iritsi zen.

EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

Ekoizpen arloak

Sarrera

2014an, EAEko ekonomiak aurreko bi urteetako jaitsierak atzean uztea lortu zuen eta %1,2 hazi zen urteko batez bestean, aurreko emaitza ia hiru puntutan hobetuz. Halaber, 2008tik inoiz jaso den aldakuntza tasarik gorena da, hiruhilekoko gehikuntzak gero eta garrantzitsuagoak ziren testuinguru batean lortuta eta 2013ko amaieran hasi zen susperraldi ekonomikoa finkatuz. Termino nominaletan, EAEko BPGaren gehikuntza %1,3ra iritsi zen, deflatorea %0,1 baino ez baitzen hazi.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Lehen arloa	-5,5	5,5	-5,5	0,2	-0,1	5,3
Industria	-2,6	1,0	-4,3	-1,8	1,9	2,9
Eraikuntza	-4,7	-3,0	-13,8	-2,4	10,6	-0,7
Zerbitzuak	-0,9	1,5	-1,4	1,1	0,6	0,4
Guztira	-1,7	1,2	-3,0	0,3	1,4	0,9

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek, eraikuntzak izan ezik, hazkunde tasa positiboak aurkeztu zituzten. Nekazaritza eta arrantzak %5,5eko hazkundea lortu zuen 2014an, gorabehera handiak izaten baititu, hala eguraldiari dagokionez nola merkatuaren baldintzei dagokienez. Beste aldetik, barne eskariaren gorakadak eta esportazioen bilakaera positiboak industriaren jarduera bultzatu zuten eta urteko batez bestean %1,0ko gehikuntza tasa lortu zuen. Eraikuntzak bakarrik egin zion ekarpen negatiboa EAEko balio erantsiaren hazkundeari 2014. urtean. Hain zuzen ere, sektore horren beherakada %3,0ra iritsi zen. Beheranzko joera hori 2008tik gertatu da etengabe, baina 2014an zehar garbi hauteman zen

narriadura hori leuntzen ari zela eta sektorearen doikuntza amaitzen ari zela. Hirugarren arloa, ordea, oso bizi hazi zen eta gero eta gehiago 2014an zehar. Horren ondorioz, gehikuntza tasa %1,5era iritsi zen. Zerbitzuetako azpiatal guztiek hazkundera bizkortu zuten.

Lehen arloa

Dagoeneko adierazi denez, lehen arloa %5,5 hazi zen 2014an, aurreko urtean %5,5eko jaitsiera bat pairatu eta gero. Termino nominaletan, urte osoko gehikuntza tasa %7,0 izan zen, eta deflatoarea %1,4 hazi zen.

Nekazaritzaren esparruan, azken ekoizpenaren gehikuntza baratzeko produktuetan, garian, frutan, leketan, azukre erremolatxan eta zekalean azpimarratu behar da. Aipatu diren lehen bost kasuetan, txarra izan zen 2013ko datuekin alderatzen dator hazkundera, baina azken produktuan, hots, zekalean, gorakada ereindako azaleraren hazkunde garrantzitsuaren ondorioa izan zen. 2014an, txakolinaren ekoizpenaren jaitsiera oso garrantzitsua izan zen, 2013ko uzta txikia izan zelako. Prezioei dagokienez, 2014ko batez bestekoa igo zen, Errioxako ardoarena igo zelako. Aitzitik, zerealen, barazkien eta patataren salneurria, bai kontsumokoa bai ereintzakoa, jaitsi egin zen.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014
BEG. Indize kateatuak	7,6	10,9	-5,5	5,5
BEG uneko prezioak	2,7	16,1	-0,6	7,0
Deflatoarea	-4,6	4,7	5,2	1,4
Enplegua	-4,9	0,8	-5,5	0,2
Produktibitatea	13,2	10,1	-0,1	5,3

Iturria: Eustat.

Abeltzaintzaren ekoizpena handitu zen 2014an. Azpiatal horretako gertakari garrantzitsuena behi esnearen ekoizpenaren gehikuntza izan zen, behien kopurua handitu zelako. Horrelakorik ez zen azken hamahiru urteetan gertatu. Beste aldetik, arrautzen ekoizpenak berriro egin zuen

behera. Prezioek norabide ezberdinak erakutsi zituzten azpiatalaren barnean, baina 2014ko batez besteko salneurria igo zen.

Basogintzari dagokionez, 2013an mozketak gutxitu eta gero, 2014an 2012ko maila berreskuratu zen. Gorakada hori jabego pribatuko mendietan eta erakunde publikoko mendietan gauzatu zen. Mozketen gehikuntza handienak intsinis pinukoak eta eukaliptokoak izan ziren. Batez besteko prezioak zertxobait igo ziren, intsinis pinuak izan zuen susperraldi neurritsuari esker, 2000-2008 epealdian zuhaitz horren salneurriak beherakada bizia ezagutu ondoren.

Industria


Industriaren balio erantsia areagotu zen 2014. urtean eta urte arteko hazkunde tasa %1,0ra heldu zen, urteko lau hiruhilekoetan suspertzeko joera etengabea erakutsiz. Sektorearen bilakaera positibo hori EAEko industriaren esportazioen helburua diren merkatu guztien susperraldian oinarritu zen.

Industria jardueraren suspertzea ez zen EAEko ekonomian bakarrik gertatu eta inguruneko ekonomia askotan ere gauzatu zen. Horrek agerian uzten du herrialde batzuetako industrien artean dagoen korrelazioa, merkataritzako hartu-emanen garapenean oinarritzen dena. Izan ere, industriaren hazkunde tasa oso antzekoa izan zen EAEn eta Eurogunea osatzen duten herrialde multzoan. Europako herrialdeen artean, Alemaniako, Espainiako eta Erresuma Batuko industriaren sendotasuna azpimarratu behar da, aurreko urteko emaitza nabarmen hobetu zutelako. Europako beste herrialde esanguratsu batzuek, hola nola Frantziak eta Italiak, aldakuntza negatiboak jaso zituzten berriro industriaren balio erantsian. Beste aldetik, Europatik kanpoko beste herrialde garatu batzuek, esate baterako AEBek eta Japoniak, industria jarduera areagotu zuten, sektorearen ekoizpenaren indizeen arabera.


Analisisa EAEko industrian fokatuta, helburu ekonomikoaren arabera sailkatzen diren produktuen banaketak adierazten du EAEko industriak 2014an lortu zuen bizkortzearen zati handi bat ekipamendurako eta bitarteko ondasunen ekoizpenak lortu zuen emaitzaren ondorioa izan zela, bi atal horiek %2,0tik gorako hazkunde tasak eskuratu zituztelako 2014an. EAEko eta inguruneko herrialdeetako kapital eraketa gordinaren susperraldiak gorarazi zuen ekipamendurako ondasunen ekoizpena.

Industria ekoizpenaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espainia



EAE



Iturria: Eurostat, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta Eustat.

Beste aldetik, kontsumorako ondasunen produkzioak emaitza txarrenak izan zituen 2014an zehar, eta aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen ia urte osoan. Atal horren barruan, kontsumo iraunkorreko ondasunek eragin zuten ekoizpenaren beherakada, aldakuntza tasa oso negatiboak bildu zituelako. Gogoratu behar da 2013ko amaieran Fagor enpresa itxi zela, eta gertakari horrek baldintzatzen dituela 2014ko eta 2013ko datuen arteko alderaketa. Kontsumo iragankorreko ondasunen ekoizpenak gora egitea lortu zuen, baina gutxiegi kontsumo iraunkorreko ondasunen jaitsiera konpentsatzeko.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
EB-28	-1,6	-11,3	7,6	2,8	-0,9	-0,3	0,6
Eurogunea	-1,9	-12,1	8,1	3,0	-0,5	-0,5	0,8
Alemania	-1,5	-15,3	15,6	5,8	1,4	0,2	1,4
Frantzia	-3,6	-6,0	1,9	2,7	0,9	-0,4	-0,5
Erresuma Batua	-2,7	-8,8	3,1	-0,8	-2,7	-0,5	1,3
Italia	-2,5	-15,8	6,6	1,1	-2,6	-2,8	-1,1
Espainia	-0,8	-10,0	3,6	0,1	-3,8	-1,8	1,5
EAE	-0,7	-12,9	2,5	1,3	-5,2	-2,6	1,0
AEB (*)	-3,4	-11,3	5,7	3,3	3,8	2,9	4,2
Japonia (*)	-3,5	-21,6	15,6	-2,6	0,2	-0,6	2,1


(*)Industriaren ekoizpena.

Iturria: Eurostat, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeriora eta Eustat.


Beraz, oro har, EAEko industria produkzioaren indizeak hazkunde positiboa jaso zuen 2014ko batez bestekoan, eta suspertzeko joera garbia erakutsi zuen urtean zehar. Portaera bera eskaini zuen Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresarien iritziez argitaratzen duen inkestatik eratortzen den industria giroaren indizeak (IGI) ere. Adierazle horrek, gorabehera batzuekin, etengabeko hobekuntza islatu zuen hilekoak aurrera zihoazen ahala. Bereziki deigarria da ekoizpenaren joerak erakutsi zuen portaera, emeki-emeki eremu negatibotik irten zelako eta bigarren seihileko ia osoan tasa positiboak lortu zituelako. Joera horrek jarraipena izan du 2015eko hasiera ere. Orobat, eskari zorroak ere hobera egin zuen urtean zehar eta saldu gabe zeuden amaitutako produktuen stockak nahiko kopuru apaletan segitu zuen.

EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Jarduera adarren arabera aztertuta, 2014an hobekuntza orokorra hauteman zen guztietan. Bizitasun handiena erakutsi zuten azpiatalen artean, erauzketaren industriak, eta kokea eta petrolioaren lantegiak daude, guztietan %10,0tik gorako gehikuntzak lortuta. Industria kimikoak, farmaziako ekoizkinek eta informatikako eta elektronikako produktuek ere sendotasuna erakutsi zuten, baina aurrekoak baino gutxiago hazi ziren. EAEko industria

ehunean tradizio handia duten adarrek ere, hots, metalurgiak eta makineria eta ekipamenduak, ekoizpena suspertu zuten, 2013an aldakuntza tasa negatiboa jaso eta gero.

Txanponaren ifrentzua industriaren lan merkatuan ikusi zen, enplegu galera %1,8ra iritsi zelako. Datu horrek eta balio erantsi gordinaren gehikuntzarenak iradokitzen dute produktibitatearen irabazia %2,9 izan zela 2014an, aurreko urtekoa baino puntu bat gehiago.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-AREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2011	2012	2013	2014
BEG bolumeneko indizea	1,3	-5,2	-2,6	1,0
BEG uneko prezioetan	1,5	-4,3	-2,5	-0,5
Deflatorea	0,2	0,8	0,0	-1,5
Enplegua	-1,3	-5,4	-4,3	-1,8
Produktibitatea	2,6	0,2	1,9	2,9
Industria produkzioaren indizea	4,1	-5,9	-3,1	1,4
Industria giroaren indizea	-12,3	-23,0	-21,2	-10,3
Ekoizteko ahalmenaren erabilera	75,1	74,2	71,7	74,2

Iturria: Eustat eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.

Eraikuntza

EAEko eraikuntzak ekarpen negatiboa egin zion berriro balio erantsi gordinaren hazkunderari eta 2014ko murrizketa %3,0ra iritsi zen. Jarduera adar horretan gauzatzen ari den doikuntza oraindik amaitu ez bada ere, 2014an nabarmen leundu zen zazpi urtez pairatu den narriadura bizia, eta joera horrek pentsarazten du sektorearen etorkizuneko bilakaera positiboa izatera helduko dela. Eraikuntzaren beherakada ez zen orokorra izan sektorearen azpiatal guztietan. Hain zuzen ere, eraikinen multzoak behera egin zuen, nahiz eta aurreko ekitaldietan baino gutxiago beheratu zen. Aitzitik, obra zibilak dagoeneko hazkunde tasa positiboak aurkeztu zituen, lehenengo aldiz 2008. urtetik.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014
BEG bolumen indizea	-7,6	-7,6	-4,7	-3,0
BEG uneko prezioak	-9,3	-11,4	-7,6	-3,5
Deflatoarea	-1,9	-4,0	-3,1	-0,5
Enplegua	-9,9	-12,9	-13,8	-2,4
Produktibitatea	2,6	6,0	10,6	-0,7
Etxebizitzen salerosketak	-19,6	-20,2	-12,4	8,5
Prezioa €/m ²	-7,8	-3,5	-20,8	4,4
Hasitako etxebizitzak	25,1	-43,7	-21,8	---
Amaitutako etxebizitzak	-0,2	-24,5	-32,9	-16,8
Bisatuak. Etxebizitzen kopurua	-11,0	-36,4	-10,2	0,6
Zementuaren itxurazko kontsumoa	-12,9	-28,0	-23,2	11,8

Iturria: Eustat, INE, Oficemen eta Sustapen Ministerioa.

Eraikuntzaren narriadura prozesua amaitzen ari delako irudia beste adierazle batzuetan ere hauteman da. Lan merkatuaren hobekuntzak, finantzaziorako baldintza hobeei eta familien errenta erabilgarriaren hazkundeak etxebizitzaren eskaria areagotu zuten. Aurreko guztiaren ondorioz, higiezin salerosketak handitu ziren 2014an, hainbat urtez aldakuntza tasa oso negatiboak jaso ondoren. Halaber, beste aldagai batzuek, hala nola etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuen kopuruak eta zementuaren salmentak, aurreko urteetan ezagutu ez zuten sendotasuna erakutsi zuten 2014an.

Sektorearen lan merkatuaren bilakaera aztertuta, 2014an ere lanpostuak galdu zirela ondorioztatzen da, baina aurreko urteetan baino askoz ere enplegu gutxiago desagertu ziren. Hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta kontu ekonomikoen datuek, hurrenez hurren, %-3,2ko eta %-2,4ko aldakuntza tasa jaso zuten 2014an. Aitzitik, 2008tik 2013ra bitarteko urteetan, enplegu galeraren batez besteko tasa %8,0tik gorakoa izan zen. Balio absolutuetan, eta Eustaten kontu ekonomikoen arabera, eraikuntzak 2013an baino 1.300 lanpostu gutxiago zeuzkan 2014an.

Zerbitzuak

Zerbitzuen urte arteko hazkunde tasa %1,5 izan zen 2014an. Zenbaki horrek hobekuntza esanguratsua iradokitzen du aurreko urtean lortutako balioaren aldean. Zerbitzuetako jardueraren bizkortzea orokorra izan zen azpiatal guztietan. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen multzoak %1,6ko hazkunde tasa eskuratu zuen 2014an aurreko urteko emaitzarekin alderatuta. Beste aldetik, administrazio publikoak, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak %2,2 hazi ziren. Azkenik, gainontzeko zerbitzuak biltzen dituen taldeak %1,1eko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen.

Merkataritzak duela urte batzuk hasi zuen uzkurdurari irtenbide zalantzati batekin ekin zion 2014. urtean. Jardueraren susperraldi motel hori islatuta geratu zen Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizean. Adierazle horren arabera, bizkortzeko joera orokorra izan zen merkataritzako atal guztietan. Izan ere, bizitasun handiena motor ibilgailuen salmenta eta konponketak erakutsi zuen, ondoren handizkako merkataritza zegoelarik. Hazkunde tasa txikiena, ordea, txikizkako merkataritzarena izan zen. Enpleguari dagokionez, merkataritzan berriro galdu ziren lanpostuak 2014an, baina galera hori aurreko urteetako baino txikiagoa izan zen.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014
BEG bolumenen indize kateatua	0,8	-0,4	-0,9	1,5
BEG uneko prezioak	2,3	0,1	-0,3	1,6
Deflatorea	1,4	0,5	0,6	0,0
Enplegua	0,5	-1,6	-1,4	1,1
Produktibitatea	0,4	1,2	0,6	0,4
Bidaiarien gualdiak	5,3	1,0	-3,1	4,0
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,89	1,91	1,89	1,92
Plazen betetze maila (ehunekoa)	46,00	46,10	44,30	46,4
Zerbitzuen koiuntura indizea	-4,1	-6,2	-4,9	1,7

Iturria: Eustat.

Turismoari dagokionez, jarduera horretaz eskura dauden adierazleek hobekuntza bat lortu zela seinatu zuten 2014an zehar. Esate baterako, Eustatek egiten duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak gehikuntza garrantzitsua zenbatetsi zuen EAEko hoteletan igarotako gaualdien kopuruan eta bidaiarien etorreran. Halaber, hotel horietako betetze maila, plazaka neurtuta, handitu egin zen. Turisten batez besteko egonaldiak ere emaitza hobea lortu zuen 2014an aurreko urtean baino, 1,92 egunetara igo zelako. Bidaiarien sarrera kopuruak gora egin zuen Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorri ziren turisten bisitak handitu zirelako eta, bereziki, EAERA atzerriko turista gehiago iritsi zirelako. Azken horien artean, Iparramerikatik eta Europako herrialde nordikoetatik iritsi ziren bidaiarien hazkunde bizia azpimarratu behar da. EAEko hiru hiriburuek lortu zituzten hazkunde tasa handiagoak bisitarien kopuruan. Joera horrek garbi frogatzen du Euskal Autonomia Erkidegoa helburu erakargarria dela eta berau bisitatzea kontuan hartzen dela zirkuitu turistikoak osatzeko orduan. Hala eta guztiz ere, 2014an hotel motako establezimenduen kopurua eta eskaintako plazen kopurua zertxobait jaitsi zen.

ZERBITZUEN BEG-AREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014
Zerbitzuak guztira	0,8	-0,4	-0,9	1,5
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,8	-2,5	-1,6	1,6
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte	3,4	0,4	0,1	2,2
Gainontzeko zerbitzuak	0,6	0,5	-0,9	1,1

Iturria: Eustat.

Analisisa garraioaren sektorean fokatuta, zerbitzuen koiuntura indizearen 2014ko datuek, garraio eta biltegiatzeko atalean, jarduera areagotu zela erakusten dute. Beste aldetik, AENAK aireko trafikoaz ezagutarazi dituen datuek portaera bikaina adierazi zuten, EAEko aireportuetatik igaro ziren bidaiarien kopurua %5,0aren inguruan hazi zelako aipatutako urte horretan. Salgaien mugimenduari dagokionez, EAEko aireportuetako batean jatorria edo helburua zuten merkantzien bolumena nabarmen handitu zen 2014an zehar. Hain zuzen ere, 2013arekiko urte arteko aldakuntza tasa %18,7ra iritsi zen, eta hazkunde esanguratsu hori orokorra izan zen EAEko hiru aireportuetarako.

Eskaria


Sarrera

EAEko ekonomiak 2014an izan zuen gorakada barne eskariaren sendotasunean eta honek BPGaren hazkundeari egin zion ekarpen positiboan oinarritu zen. 2008tik ez zen horrelako ekarpen positiborik lortu. Barne eskariaren gehikuntza familien kontsumoaren bizitasunean izan zuen oinarri behinena. Kapital eraketa gordina, berriz, motel hazi zen urtean zehar, baina hiruhileko batetik hurrengora bizkortzeko joera arina erakutsi zuen. Osagai horretan, ekipamendurako ondasunek bultzatu zuten EAEko enpresen inbertsioaren agregatuaren susperraldia.


Kanpo eskariari dagokionez, aldagai honek 2014an ez zion inolako ekarpenik egin BPGaren gehikuntzari. Esportazioak areagotu ziren, nazioarteko ekonomia suspertu zelako eta euroak balioa galdu zuelako. Hala ere, gorakada hori inportazioen hazkundeak konpentsatu zuen, barne eskariaren bizitasunak bultzatuta.

Barne eskariaren osagaien hazkundera

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordina



Iturria: Eustat.

Gastua azken kontsumoan

2014an, azken kontsumoko gastua %1,4 hazi zen, 2008tik jaso den zenbakirik altuena baita, hiruhilekoz hiruhileko bizkortzeko joera garbia erakutsiz. Aldagai horren osagaiak aztertuta, hala familien kontsumoak nola administrazio publikoenak hazkunde tasa positiboak lortu zituzten. Bizitasun handiena familiek kontsumoan eginiko gastuan gauzatu zen, urteko batez bestean %1,6ko hazkunde tasa jaso zuelako. Bilakaera on horren oinarrian, lan merkatuaren egoera hobea, aberastasunaren hazkundera eta Europako moneta agintaritzak ezarri zituen interes tasa txikiagoak daude, beste arrazoi batzuen artean. Administrazio publikoen gastuak tasa txikiagoa eskuratu zuen, urteko batez bestean hazkundera %0,9ra mugatu zelako.

Familien kontsumoa neurtzen duten adierazleen bilakaera aztertuta, barne eskariaren agregatuak 2014an erakutsi zuen hobekuntzarako joera bera hautematen da, joera hori orokorra ez izan arren. Turismoen matrikulazioaren gorakada bizia eta txikizkako merkataritzaren igoera apala nabarmendu ziren. Lehenengo kasuan, PIVE 5 egitasmoa aipatu behar da, eraginkortasun energetiko altua duten ibilgailuak erosteko diru laguntza handiak eman zituena. Zehazkiago adierazita, turismoen matrikulazioa %18,7 areagotu zen 2014. urtean.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014
Soldatapekoen ordainketa	1,9	0,1	-3,6	-2,2	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	1,9	3,6	2,7	1,3	0,7
Enplegua	-1,3	-0,9	-3,3	-3,0	0,3
Pentsioen kopurua (*)	1,5	1,4	1,3	1,7	1,4
Batez besteko pentsioa (*)	2,9	3,1	2,9	3,2	1,8
PFEZren diru bilketa	3,8	6,3	0,2	-1,5	2,9
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	1,4	2,0	1,1	0,5	0,5
KPI	1,7	3,1	2,3	1,6	0,2

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014
Kontsumo pribatua (bolumeneko indizea)	0,9	-1,3	-1,6	-1,0	1,6
Kontsumo publikoa (bolumeneko indizea)	2,2	0,7	-0,9	-1,4	0,9
IPI kontsumo ondasunak. EAE	0,6	-0,2	-3,8	-5,1	-2,1
IPI kontsumo ondasunak. Estaturik	0,9	-2,0	-4,8	-2,2	2,0
Automobilen matrikulazioa	-9,6	-26,4	-13,3	7,9	18,7
Txikizkako merkataritzaren indizea	---	-3,8	-5,2	-4,1	0,5
Azalera handietako merkataritza indizea	---	-5,7	-3,2	-1,0	-1,3

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kontsumitzailearen konfiantzari dagokionez, Laboral Kutxak eginiko adierazleak seinalatzen du EAEko familiek baikortasuna berreskuratu zutela ekonomiaren etorkizuneko bilakaeraz 2014an zehar. Hobekuntza hori lan merkatuarekiko iritzi baikorragoan eta ekonomia orokorraren egoeraz duten konfiantza handiagoan oinarritu zen. Baikortasun horri esker, familiek ordura arte geroratuak izan ziren erosketa batzuk egin zituzten.

Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak hazkunde erritmoa bizkortu zuen aurreko urteko emaitzaren aldean, aldakuntza tasa %0,0an kokatuz. Tasa hori 2008tik negatiboa ez den lehena da. Inbertsioaren narriadura osagai guztietan leundu zen, baina are biziagoa ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan. Izan ere, osagai horrek %2,2ko tasa eskuratu zuen urteko batez bestekoan. Aitzitik, gainontzeko inbertsioa biltzen duen beste osagaiak, non eraikuntzan eginiko inbertsioak pisu handiena bereganatzen duen, bilakaera hobetu zuen, baina %-1,0ko narriadura izan zuen 2014an. Azken atal horrek agregatuaren emaitza kaltetu zuen. Dinamismo txiki eta hasiberri horren atzean, barne eskariaren eta, batez ere, nazioarteko testuinguruaren hobekuntza dago.

Kapital eraketa gordinaren 2014ko gehikuntza eskura dauden hainbat adierazlek markatu zuten bilakaeran hautematen da. Ekipamendurako ondasunen barne ekoizpenak portaera hedakorra baina motela izan zuen. Zama ibilgailuen matrikulazioak ere oso gehikuntza tasa esanguratsua lortu zuen, aurreko urteetako tasa negatiboak atzean utziz.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	-3,9	-1,3	-7,0	-4,6	0,0
- Ekipamendurako ondasunak	-2,5	3,7	-4,9	-3,1	2,2
- Gainontzeko inbertsioa	-4,4	-3,1	-7,8	-5,3	-1,0
IPI ekipamendurako ondasunak:	-3,4	11,8	-5,8	-3,5	2,3
- IPI garraio materiala	5,3	13,4	-10,3	-2,9	0,4
- IPI makineria eta ekipamendua	-5,1	15,9	-1,1	-0,1	1,3
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	13,1	1,6	2,3	-7,2	-2,3
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-3,0	-15,8	-18,5	-3,0	13,3

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Enpresarien igurikimenek baikortasun esanguratsua aurkeztu zuten 2014an aurreko urtearekin alderatuta. Enpresarien konfiantza indizea %-1,0an kokatu zen, eta oraindik saldo negatiboa izan arren, 2013an lortutakoa baino 56 puntu gorago zegoen. Hala negozio zifrari buruzko igurikimenek nola esportazioei buruzkoek oso nabarmen egin zuten hobera. Enpresen konfiantza indizearen gainontzeko atalei dagokienez, barneko salmentek, inbertsioak eta enpleguak ere hobera egin zuten, baina modu apalago batean. Jarduera adarren arabera, konfiantza sektore guztietara hedatu zen, baina oso bereziki industrian. Sektore horretako indizea %18,0ra iritsi zen.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Nazioarteko merkataritzaren bilakaerak bat egin zuen ekonomia jarduerarekin eta neurritz hazi zen. Azaleratzen ari diren merkatuetako eskaria gutxitu izanak, Ukrainiako krisiak, Ekialde Ertaineko gatazkek, Mendebaleko Afrikan pairatu zen ebolak eta negu gogorraren ondorioz urteko lehen hilekoetan AEBekin egin ziren merkataritzako harremanak murriztu izanak eragin zuzena izan zuten salgaien merkataritzan, termino errealetan %2,8 gehitu baitzen, 2013an baino lau hamarren gehiago, baina berriro BPGaren hazkunde mailaren azpitik. Are gehiago, tasa horrekin, hiru urte pilatu dira hazkunde txikiak jasoz. 2012tik 2014ra bitarteko epean, merkataritzaren batez besteko gehikuntza %2,4 izan zen, 1948an hasi zen serie historikoan

inoiz jaso zen txikiena delarik, salbuespenak 1975eko eta 2009ko jaitsierak direlarik, biak ekonomia krisi batek eraginak.


Dolarretan, esportazioen hazkundera are txikiagoa izan zen (%0,7), eta termino errealetan ez bezala, atzerakada garrantzitsua izan zen 2013an jasotako %2,1aren aldean. Neurtzeko bi modu horien arteko aldea honakoan oinarritzen da: estimazio erreala kalkulatzeko, inflazio tasak eta herrialdeen arteko truke tasak kontuan hartu behar dira, eta bi aldagai horiek egokitu. Dolarretan egiten den kalkuluan, urte batetik bestera esportazioen eta inportazioen salneurrien jaitsiera garrantzitsua islatzen dute emaitzek, batez ere oinarrizko produktuen kasuan.

Izan ere, dolarretan eginiko kalkuluaren arabera, natur baliabideak esportatzen dituzten eremuak izan ziren kaltetuenak. Hain zuzen ere, Hegoamerikako eta Erdialdeko Amerikako esportazioak %5,8 amildu ziren. Beherakada hori, jarraian gertatu den hirugarrena baita, herrialde esportatzaile nagusien jaitsiera biziaren ondorioa izan zen. Esate betarako, soiaren eta petrolioaren merkatzeak Brasili kalte egin zion (%-7,0); Petrolioaren eta beraren eratorrien salmentarekiko mendekotasunak Venezuelako jaitsiera eragin zuen (%-9,5); eta Argentinak nabaritu zuen soiaren, artoaren eta gariaren merkatzea (%-11,9). Hiru herrialde horiek eremu osoko esportazioen %56 biltzen dituzte eta, horren ondorioz, eremuaren bilakaera baldintzatzen dute. Antzeko bilakaera bizi zen Estatu Independenteen Elkargoan (EIE), %6,1 gutxiago saldu zutelako. Kasu horretan, Armenia izan ezik, eremua osatzen duten herrialde guztiek behera egin zuten, batez ere Ukrainiak eta Errusiak, petrolioaren merkatzeaz gain, uztailaren 15etik abenduaren 31ra bitartean %47 merkatu baitzen, bi herrialdeen arteko gatazkaren ondorioz.


Aldakuntza tasa positiboak lortu zituzten bi eremu bakarrak Asia eta Europa izan ziren, baina beren hazkundera 2013an lortutakoak baino txikiagoak izan ziren. Japoniako salmentak berriro gutxitu ziren, nolabaiteko hobekuntza izan zuten arren (%-3,4). Aitzitik, Txinako (%6,0), Hego Koreako (%2,3) eta Indiako (%0,8) esportazioek konpentsatu eta bultzatu zituzten eremu horretako salmentak. Europar Batasunean, eremu barruko esportazioak nahiko egonkor mantendu ziren eta 2013ko mailari eutsi zioten, baina eremutik kanpoko salmentak gutxitu ziren. Europako ekonomia nagusien artean, Alemaniako (%4,1), Italiako (%2,0) eta Espainiako (%1,6) salmenten hazkundera nabarmendu zen, nahiz eta azken bi herrialde horien tasa aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen. Alde negatiboan, Erresuma Batua kokatu zen, libreraren balio irabaziak kaltetuta, lehiakortasuna galdu zuelako eta baita salmentak Eurogunean ere.

Ondasunen esportazioak dolarretan
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

EAEko ekonomiak bilakaera hobea lortu zuen eta Eustatek egin duen lehen zenbatespenaren arabera, kanpoan (Estatuan gehi atzerrian) saldutako ondasunen eta zerbitzuen esportazio nominalak %3,1 hazi ziren, munduko ekonomiarenak (%0,7) baino gehiago. Termino erreletan, gehikuntza tasa %3,4an kokatu zen. Horrek salmenten susperraldia errotzen ari dela pentsarazten du, 2012ko beherakada handiaren (%-4,7) eta 2013ko gehikuntza txikiaren (%0,9) ondoren. Inportazioen guztizkoari dagokionez, gehikuntza nominala %2,8ra iritsi zen eta erreala, berriz, %3,2ra.

Analisia atzerrian saldutako ondasunetan fokatzen bada, emaitzak are hobekiak izan ziren. 2012an hasi zen moteltzearen eta 2013ko beherakada biziaren ondoren, esportazioek 11,5 puntutan hobetu zuten emaitza eta urteko batez bestekoan %9,9 hazi ziren. Kontsumo pribatuaren eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren susperraldiak inportazioak areagotu zituzten eta, horren ondorioz, esportazioen erritmo berean hazi ziren. Hala eta guztiz ere, esportazioen balioa 22.243 milioi eurora iritsi zen, ordura arte inoiz jaso den zenbakirik gorena baita, baina inportazioak ez ziren 17.350 milioi eurora iritsi. Bi zenbateko horiek konbinatuta, EAEko merkataritza superabita 4.895 milioi eurora heldu zen. Energiatz bestelako merkataritzak ez zuen horrelako gorakadarik eskuratu, energiaren salneurria merkatu zelako. Hala ere, energiatz bestelako esportazioak %5,2 hazi ziren eta inportazioak, berriz, %4,3. Edozein kasutan, gehikuntza tasa garrantzitsua izan zen, alde batetik bi agregatuek hazkunde positiboak berreskuratu zituztelako, 2013ko jaitsiera biziaren ondoren, eta beste aldetik energiatz bestelako superabita inoizko handiena izan zelako, 8.700 milioi eurotik gorakoa.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2009	2010	2011	2012	2013	2014 (*)	Milioi € 2014(*)
Esportazioak							
Guztira	-26,3	19,6	14,6	2,4	-1,6	9,9	22.243,9
Ez-energetikoak	-25,9	19,3	14,4	0,6	-0,8	5,2	19.402,3
Energetikoak	-30,9	23,2	16,7	20,8	-8,7	57,5	2.841,6
Inportazioak							
Guztira	-38,9	25,5	12,2	-8,6	0,9	9,9	17.348,2
Ez-energetikoak	-38,4	26,3	11,6	-7,3	-1,9	4,3	10.701,7
Energetikoak	-39,8	24,0	13,4	11,2	6,6	20,2	6.646,5
Saldoa							
Guztira (milioi €)	2.650,9	2.445,0	3.178,5	5.146,6	4.450,0	4.895,6	4.895,6
Ez-energetikoak (milioi €)	5.566,9	6.069,9	7.236,8	8.185,0	8.313,9	8.700,6	8.700,6

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomia eragileak ondo baliatu ziren Europako merkataritza bazkide nagusien hobekuntzaz eta euroak gainontzeko dibisen aldean urteko bigarren erdian erakutsi zuen ahultasunaz. Izan ere, Europar Batasuna berriro izan zen EAEko esportazioen helburu behinena, baina esportazioen mugimendu bat hauteman zen Europar Batasunekoak ez diren ELGEko merkatu batzuetatik estatubatuar merkatura. Zehazkiago adierazita, merkatu amerikarrak EAEko produktuen %7,7 bereganatu zuen, eta ehuneko hori kontinente zaharrera doan %62,7aren aldean oso txikia den arren, 1990an hasi zen serie historiko osoan jaso den merkatu kuotarik handiena da. Energia alorreko produktuen salerosketak zerikusi handia izan zuen emaitza horrekin.


Esportazioen gehikuntza EAEtik esportatzen diren hiru talde nagusien salmenten gorakadaren ondorioa da bereziki. Izan ere, ekipamendurako ondasunen salmenta %7,6 areagotu zen. Ondasun horien artean, ibilgailu automobilen esportazioa nabarmendu zen –talde horretan pisu gehien duen atala da eta %17,2 hazi zen-, baina baita trenbideari lotutako ekoizkinena ere (%46,9 areagotu zen). Gutxiago, baina hauek ere emaitza onak lortuta, metal arruntak eta beren manufakturak %5,8 gehitu ziren eta hazkunde tasa positiboak berreskuratu zituzten, bi urtez etengabeko jaitsierak bildu eta gero. Energiaren salmenta, berriz, %57,5 handitu zen. Horren ondorioz, energiaren esportazioaren balioa 2.800.000 eurotik gorakoa izan zen, ordura arte inoiz jaso den zenbatekorik gorena delarik. Portaera horretatik desbideratu ziren atalak nekazaritzako ekoizkinak, plastikoa eta kautxua, eta makinak eta tresna elektrikoak izan ziren, jaitsiera txikiak izan zituztelako.

Izan ere, Europako merkatuan bizi zen susperraldia batez ere automobilen esportazioen gehikuntza sendoaren ondorioa izan zen (%26,0) eta, neurri txikiagoan, makinak eta tresna mekanikoenarena (%2,9). Horrek hazkunde positiboak EAEko merkatu behinenetan berreskuratzea ahalbidetu zuen. Esate baterako, Italian eta Alemanian salmentak %9,9 eta %7,0 areagotu ziren, hurrenez hurren, eta tasa positiboak eskuratu ziren bi urtez jarraian beherakadak bildu ondoren. Erresuma Batuan eta Frantzian ere, esportazioek bilakaera ona erakutsi zuten. Merkatu britainiarrean, automobilen eta makineria mekanikoaren salmentak %11,2ra bultzatu zituen esportazioak eta Frantzian (%0,8), berriz, energiaren eta automobilen salmentak manufakturen alorreko esportazioen beherakada konpentsatzea lortu zuen.

EAEko ekonomiaren hobekuntzari esker, Europar Batasunetik etorritako inportazioak %30,3 hazi ziren, eta erosketa guztien %55,4 eremu horretatik iritsi ziren, 2013an ehuneko hori %47,3 bakarrik izan zen bitartean. Kontinente zaharrak merkatu kuotan irabazi zituen zortzi puntu horiek, batez ere, Erresuma Batuarekin izan ziren harremanen ondorioa dira. Izan ere,

Erresuma Batua EAEko eragileen energia hornitzaile nagusietako bat izan zen. Dolarraren balio irabaziaren eta Errusiarekiko gatazkaren aurrean, aukera onena bihurtu zen. Zehazkiago adierazita, Erresuma Batutik ekarritako inportazioek inoizko kopururik handiena markatu zuten eta ia hirukoiztu zuten beren balioa aurreko urtean jasotakoaren aldean. Hain zuzen ere, energia britainiarraren erosketaren gehikuntza 2013ko 10 milioi euroetatik 2014ko 990 milioi euroetara igaro zen.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera
Ehunekoak



Iturria: Eustat. 2014ko datuak behin behinekoak dira.

Arrazoi beragatik, euroak dolarraren aldean ezagutu zuen balio galerak AEBetan eginiko salmentak lagundu zituen, %18,9 areagotu zirelako. Estatubatuar merkatura energiako ekoizkinak, galdarako manufakturak eta tresna mekanikoak esportatu ziren (hiru talde horiek herrialde horretara bideratzen diren esportazio guztien %75 biltzen dute), eta hirurek bi zenbakiko hazkunde garrantzitsuak lortu zituzten. Datu negatiboa inportazioen eskutik iritsi zen, %52,3 murriztu zirelako. Gutxienez 1991tik ez zen horrelako jaitsierarik ezagutu. Beste aldetik, yenaren balio galera biziak eta barne eskariaren ahultasunak Japoniaren inportazioak galgatu zituzten eta, horren ondorioz, EAEko salmentak herrialde horretan, %59,8 murriztu baitziren. Halaber, EAEko eragileak ez ziren truke tasaz baliatu eta makineria mekanikoaren inportazioak hazi ziren arren, gainontzeko atalen jaitsierak %1,4 gutxitu zituen erosketak.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Miloi €
	2009	2010	2011	2012	2013	2014(*)	2014(*)
Esportazioak							
ELGE	-30,0	18,2	17,6	2,1	-1,0	9,4	17.160.114
Europar Batasuna	-33,0	22,3	18,2	-0,1	-3,6	12,9	13.950.767
Alemania	-32,4	19,7	23,9	-1,8	-0,4	7,0	3.142.191
Frantzia	-29,0	23,5	12,1	8,0	-7,2	0,8	3.444.624
Erresuma Batua	-36,1	22,0	24,9	14,8	-13,8	11,2	1.339.361
Italia	-37,3	31,1	9,6	-19,7	-3,7	9,9	1.012.639
AEB	-34,8	18,1	13,8	0,9	12,4	18,9	1.705.707
Japonian	-65,4	45,5	28,8	43,3	20,4	-59,8	33.537
Errusia	-47,1	49,2	26,7	-8,8	4,6	-4,1	191.778
Txina	-35,0	55,9	16,1	-11,1	18,1	28,8	635.758
Inportazioak							
ELGE	-34,2	22,4	8,0	3,9	-0,5	15,0	11.510.211
Europar Batasuna	-37,0	23,3	7,7	-4,7	-2,8	30,3	9.604.587
Alemania	-46,6	22,6	19,2	1,9	-6,2	5,9	1.973.652
Frantzia	-36,5	29,4	8,7	-6,1	-1,4	-0,7	1.589.063
Erresuma Batua	-41,4	43,5	2,1	-30,6	-5,2	180,0	1.463.595
Italia	-28,7	2,1	1,6	4,0	-16,1	2,9	805.787
AEB	-10,2	6,1	65,3	-12,9	40,8	-52,3	378.649
Japonian	-36,6	25,7	-2,8	1,7	-14,6	-1,4	124.212
Errusia	-47,0	36,7	15,6	-24,3	19,0	-35,9	1.604.096
Txina	-36,4	24,0	2,7	-7,6	-3,3	15,8	937.245

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Oro har, EAEko enpresek garapen bidean dauden herrialdeetara %11,7 gehiago esportatu zuten arren, eremu horretako herrialde nagusiek, Txinak izan ezik, erosketak gutxitu zituzten EAEn. Esate baterako, Brasilera esportatutakoa %6,4 jaitsi zen, 2013an izan zen hazkunde sendoaren ondoren. Halere, herrialde horretan saldutakoak gorabehera handiak izaten ditu urte batetik hurrengora. Orobat, Errusiak ekipamendurako askoz ondasun gutxiago inportatu zuen EAetik eta merkatu horretarako esportazioak %4,1 murriztu ziren. Aitzitik, automobilen eta makineria mekanikoaren salmenta garrantzitsuak Txinara bideratutako esportazioak oso

nabarmen bultzatu zituen, %28,8 hazi zirelako. Datu horren garrantzia ez datza bakarrik hazkunde tasaren sendotasunean, EAeko enpresak Txinako merkatuan gero eta gehiago sartzen ari direla egiaztatzea ere esanguratsua da. Hain zuzen ere, hamar urtean Txinara produktuen %1,2 esportatuzetik 2014ko %2,9 saltzera igaro da.

Inportazioei dagokienez, joera antzekoa izan zen. Errusiatik iritsitako erosketak, bereziki energetikoak, amildu ziren, Europak herrialde horri Ukrainiako gatazkan parte hartzeagatik ezarri zizkion zigorren ondorioz. Beste aldetik, Txinan erositako makineria eta erremintek %15,8 handitu zituzten handik inportatutakoa.

Lan merkatua


Bost urtez jarraian enplegua galdu ondoren, EAeko lan merkatuak lanpostuak sortu zituen 2014an, nahiz eta lanpostuen kopurua txikiegia izan zen. Hain zuzen ere, lanpostuen gaian erreferentzia nagusia denak, hots, Eustaten kontu ekonomikoetan zenbatesten den enpleguak, %0,3an kokatu zuen urte horretako batez besteko hazkundea. Gehikuntza hori ez zen nahiko izan langabezia tasa gutxitzeko eta berriro egin zuen gora aurreko urtearen aldean.

Oro har, EAeko lan merkatua aztertzen duten iturriek kontu ekonomikoetan hauteman zen enplegu sorrera hori adierazi zuten. Salbuespen bakarra INEk argitaratzen duen biztanleria aktiboaren inkesta izan zen, beheranzko joerari jarraipena eman ziolako (%-0,9). Gainontzeko estatistika iturri guztiak urkila estu batean kokatu ziren enpleguaren bilakaera kalkulatzeko orduan. Mutur batean, BJA inkestak %0,2ko gehikuntza tasa kalkulatu zuen, eta beste muturrean lehenago aipatu den kontu ekonomikoen %0,3ko tasa, Gizarte Segurantzako afiliazioaren erregistroarekin bat datorrena.


Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuak hilean behin argitaratu izanak bide ematen du enplegu sorreraren hasiera 2014ko udaberrian kokatzeko. Hain zuzen ere, 2008ko azarotik 2014ko maiatza arte, erregistro horren urte arteko aldakuntza tasa negatiboa izan zen beti, eta hileko horretan lortu zen zifra positibo bat, zerbitzuen alorrarekin zerikusia duten jarduera batzuen bilakaerari esker. Gehikuntza tasa horiek gero eta handiagoak izan ziren hilekoak aurrera zihoazen heinean, eta 2015eko lehen hilekoetan ere jarraipena izan dute. Hori dela eta, emaitza hobea espero da urte honetarako.

Enpleguaren bilakaera EAEn Pertsonak


Kontu ekonomikoak




Gizarte Segurantzako afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Kontu ekonomikoari dagokionez, 2014an enplegua sortu zuen sektore bakarra zerbitzuak (%1,1) izan ziren arren, bai industria bai eraikuntza hobekuntza prozesuan sartu ziren poliki-poliki, aurreko urteetako jaitsiera tasak nabarmen murriztuz. Izan ere, industria 2013. urteko %-4,3tik 2014ko %-1,8ra igaro zen, eta eraikuntzaren zenbakiak %-13,8 eta %-2,4 izan ziren aipatu diren bi urte horietarako.

Kontu ekonomikoek zenbatetsi dituzten BPGaren eta enpleguaren hazkunde tasen konbinaketak adierazten du 2014ko produktibitatea aurreko urteetan baino apur bat gutxiago hazi zela. Zehatz-mehatz, lan faktorearen itxurazko produktibitatea %0,9 hazi zen, aurreko bi urteetako %1,4aren aldean. Dena dela, zenbaki hori ez dago 1995etik jaso den batez besteko baliotik (%1,1) oso urrun. Ohikoa denez, produktibitatearen irabazi handienak industrian eta lehen arloan eskuratu ziren. Lehenengo kasuan, gehikuntza tasa %2,9ra heldu zen, azken hogeitau urteetako batez bestekoaren gainetik dagoela. Lehen arloak, berriz, %5,3 areagotu zuen produktibitatea, baina sektore horretan gorabehera handiak izaten dira. Beste aldetik, eraikuntzak zertxobait okertu zuen bere eraginkortasuna, aurreko bi urteetako emaitza bikainen ondoren. Azkenik, zerbitzuek (%0,4) ez ziren asko desbideratu jaso ohi duen batez bestekotik (%0,6).

ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN


Urte arteko aldakuntza tasak	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Enplegua guztira:	-4,0	-1,3	-0,9	-3,3	-3,0	0,3
Produktibitatea guztira:	0,1	1,8	1,2	1,4	1,4	0,9
- Enplegua lehen arloan	-3,4	-0,8	-4,9	0,8	-5,5	0,2
- Produktibitatea lehen arloan	-1,4	21,8	13,2	10,1	-0,1	5,3
- Enplegua industrian	-10,4	-3,4	-1,3	-5,4	-4,3	-1,8
- Produktibitatea industrian	-2,9	6,1	2,6	0,2	1,9	2,9
- Enplegua eraikuntzan	-7,9	-7,0	-9,9	-12,9	-13,8	-2,4
- Produktibitatea eraikuntzan	0,5	-1,0	2,6	6,0	10,6	-0,7
- Enplegua zerbitzuetan	-1,0	0,2	0,5	-1,6	-1,4	1,1
- Produktibitatea zerbitzuetan	1,0	0,5	0,4	1,2	0,6	0,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestaren arabera, 2014an lortu zen enpleguaren gehikuntza emakumeen artean gauzatu zen. Hain zuzen ere, emakumeen enplegua %0,9 hazi zen eta gizonena, berriz, %0,5 jaitsi zen. Portaera ezberdin hori ulertzeko, kontuan hartu behar da sektore bakoitzaren bilakaera, zeren eta zerbitzuen hazkundeak mesede egin baitzion kolektibo horri, emakume gehienek bertan lan egiten dutelako. Aitzitik, industriak eta eraikuntzak bizi zituzten zailtasunek gizonen enpleguari kalte egin zioten bereziki. Adinaren arabera, enplegua bi muturretan sortu zen. Izan ere, adin handieneko landunen kopurua %2,0 hazi zen eta 25 urtetik beherakoenak %6,2ko

gehikuntza tasa eskuratu zuen. Hala ere, 25etik 44 urtera doan adin taldean enpleguak %1,8 egin zuen behera.

Enpleguaren igoera txiki horrek aldibaterakotasuna areagotu zuen. Zehazkiago adierazita, 2014an, aldi baterako kontratua zeukaten soldatapekoen ehunekoa %23,6an kokatu zen, 2013ko emaitza baino 2,2 puntu gorago, etengabeko igoera batean. Bilakaera horrek iradokitzen du lan merkatuaren azken erreformak ez duela balio izan langile finkoen eta aldi baterakoen arteko bitasuna gutxitzeko, erreformaren helburu nagusietakoa zelarik.




Iturria: Eustat eta Eurostat.

Lan merkatuaren 2014ko beste ezaugarri bat emakumea lan merkatuan sartzeko prozesuaren jarraipena izan zen. Hain zuzen ere, emakumeen partaidetza tasa %51,9ra igo zen, aurreko balioa puntu bat baino gehiago gaudituz, aldagai horren markarik gorena berriro ezarriz. Aitzitik, gizonen artean nolabaiteko egonkortasuna hauteman da eta jasotako tasa aurreko urteko bera izan zen (%63,0). Bi kolektibo horien konbinaketak partaidetza tasa %57,3ra igo zuen, 2013koa baino zazpi hamarren gorago. Hori ere serie historiko osoaren daturik altuena da.

Biztanleria aktiboaren igoeraren ondorioz, sortutako enplegua ez zen nahiko izan langabezia murrizteko eta %4,7 hazi zen urteko batez bestekoan. Portzentaje hori berdina da lan merkatuan eskarmentua zutenentzat eta lehen lanpostua bilatzen ari zirenentzat. Beste aldetik, langabeziaren gehikuntza emakumeen artean bakarrik gauzatu zen (%10,6), gizonen artean inolako aldakuntzarik jaso ez zen bitartean (%0,0). Aurrekoaren ondorioz, 2014ko langabezia tasa %14,9an kokatu zen, aurreko urtekoa baino sei hamarren gorago. Hori horrela izan bazen ere, goranzko bilakaera zertxobait galgatu zela hauteman zen, alde batetik azken urteetako igoera txikiena delako eta, beste aldetik, bigarren seihilekoko langabezia tasa (%14,5) lehen seihilekoko (%15,2) baino txikiagoa izan zelako.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Beste aldetik, EAEn tramitatu ziren enplegua erregulatzeko dossierrek lan merkatuaren 2014ko bilakaera hobea baieztatu zuten, krisia 2008an hasi zenetik jaso den kopururik txikiena jaso zelako. Zehatz-mehatz, 1.434 dossier tramitatu ziren, aurreko urtekoak baino %40,9 gutxiago, eta 16.747 pertsonarengan izan zuten eragina, 2013koen erdia, gutxi gorabehera. Alderdi negatibo gisa, adierazi behar da kontratua amaitzeko dossierren kopurua ez zela murriztu proportzio berean, azken urteetako kopuru txikienari eragin zion arren. Hain zuzen ere, kolektibo horretako jaitsiera %22,0 izan zen.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Dosierren kopurua	2.565	1.993	1.560	2.636	2.426	1.434
Eragindako langileak	68.722	35.426	22.072	37.429	31.790	16.747
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	1.170	1.051	2.203	5.466	5.814	3.196
- Behin-behineko etetea	65.574	32.349	17.991	28.627	24.104	12.091
- Kontratua amaitzekoa	1.978	2.026	1.878	3.336	1.872	1.460

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saila.

Azkenik, kontratazioa oso nabarmen hazi zen 2014an, aurreko urteko emaitzaren aldean %12,1 areagotu zelako. Mugagabeko kontratuen bilakaera ona azpimarratu behar da, %34,0 hazi zirelako, nahiz eta beraien pisua kontratu guztien multzoan %5,2 baino ez izan arren. Dena dela, kontratu mota horrek pisu pixka bat irabazi du azken hiru urtean. Halaber, aldi baterako kontratazioa %11,4 gehitu zen guztira, abaguneko kontratuak eta lanaldi laburrekoak berdintsu hazi zirelarik. Azken mota hori da gehien erabili zena kontratazioaren barnean.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2014	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Guztira	745.083	-17,8	5,6	2,2	-6,6	1,1	12,1
Lanaldi osoko mugagabeak	22.093	-32,0	-7,3	-13,4	5,4	5,4	34,0
Obra edo zerbitzukoak	141.872	-21,1	8,1	4,0	-11,8	-3,1	8,7
Abagunekoak	173.109	-28,0	11,1	-2,9	-12,5	2,1	13,9
Lanaldi laburrekoak	297.609	-9,7	5,0	5,0	1,1	6,0	12,7
Prestakuntzakoak (*)	7.221	-37,7	8,1	2,7	-13,7	14,3	36,3
Gainontzekoak	103.179	-6,6	-1,9	4,8	-8,9	-7,9	7,4

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren(SEPE) datuak erabiliz.

Prezioak, kostuak eta soldatak

Bai EAEn bai inguruneko ekonomietan 2014. urtea ekonomia susperraldikoa izan zen arren, oro har prezioek ez zuten inolako presiorik jaso eskariaren aldetik. Aitzitik, prezioen atalean gehien aipatu zen mehatxua deflazioarena izan zen, azkenean gauzatu ez zen mehatxu bat izan zelarik. Nazioarteko merkatuetan petrolioaren prezioak pairatu zuen beherakada biziak gehien erabiltzen diren prezioen adierazleak beherantz bultzatu zituen, eta ekoizteko gehiegizko ahalmenak gainontzeko prezioak apaldu zituen.

Zehaztasun gehiagoz adierazita, BPGaren deflatoarea %0,1 baino ez zen hazi 2014an, hots, aurreko urtean baino bost hamarren gutxiago. Apaltze garrantzitsu horren erantzuleak barneko zein kanpoko deflatoarea izan ziren. Azken horiek 2013koak baino balio altuagoak jaso zituzten, baina oraindik balio negatibotan jarraitu zuten, petrolio gordinaren salneurriak baldintzatuta. Halaber, barne eskariaren deflatoarea puntu bat egin zuen behera, aurreko urteko %1,0tik 2014ko %0,0ra, kontsumo pribatuaren deflatoarea 2014ko amaieran susperraldi nabarmena ezagutu zuen arren.

DEFLATOREEN BILAKAERA

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
BPGaren deflatoarea	-1,0	1,5	0,4	0,1	0,6	0,1
Barne eskariaren deflatoarea	-0,1	0,9	1,1	0,0	1,0	0,0
Esportazioen deflatoarea	-8,0	4,0	6,9	1,2	-1,9	-0,3
Inportazioen deflatoarea	-6,1	3,0	7,5	0,9	-1,3	-0,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPIak urte arteko tasa negatiboa (%-0,7) jaso zuen urte amaieran, urte osoko batez besteko tasa %0,2an kokatu zen bitartean. Bi zenbaki horiek serie historiko osoan jaso diren txikienak dira. Kontsumoko prezioen apaltzea urte osoan zehar luzatu zen. Hasierako hilekoan indizearen balioa %0,6 izan zen bitartean, gorago aipatu den datuarekin (%-0,7) amaitu zuen urtea. Urte arteko jaitsiera tasak udako hilekoetan jaso ziren lehenengo aldiz eta ia hileko guztietan berritu dira harez geroztik, baita 2015eko lehen

hilekoetan ere. Petrolioaren merkatzea da kontsumoko prezioek izan duten jaitsieraren arrazoi nagusia.

Hain zuzen ere, Brent motako petrolio 110 dolarretik gorako prezioan saldu zen iazko lehen erdian, baina gero 60 dolarretara jaitsi zen urte amaieran, eta baita beherago ere 2015eko lehen hilekoetan. Prezioen jaitsiera bizi horretan, paper garrantzitsua jokatu zuen haustura hidraulikoaren bitartez AEBetan eta beste herrialde batzuetan ustiatzen ari diren ezohiko petrolioak, lehengai horren eskaintza oso nabarmen areagotu duelako. Horri gehitu behar zaio petrolioaren eskaria ahula izan zela eta gainontzeko ekoizleek ez zutela gehiegizko eskaintza horri erantzun, merkatu kuotarik ez galtzeko.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2010	2011	2012	2013	2014	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	1,7	3,1	2,3	1,6	0,2	0,2
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	1,8	1,5	1,6	0,3	0,3
KPI landutako elikagaiak (%14,1)	0,7	3,8	3,3	3,1	0,0	0,0
KPI industriako ondasunak (%26,2)	-0,2	0,7	0,3	0,5	0,1	0,0
KPI zerbitzuak (%41,5)	1,4	2,0	1,7	1,8	0,6	0,3
Hondarreko inflazioa (%18,2)	6,6	9,5	6,1	1,4	-0,6	-0,1
KPI landugabeko elikagaiak (%7,0)	0,2	1,5	2,7	3,7	-1,2	-0,1
KPI energia (%11,2)	11,5	15,3	8,3	0,0	-0,1	0,0

Iturria: INE.

Petrolioaren bilakaeraz landa, gainontzeko produktuek ere, oro har, moteltzeko joera garbia erakutsi zuten. Izan ere, azpiko inflazioak ere, energiako ekoizkinak eta landu gabeko elikagaiak kanpoan uzten baititu, ez zuen tentsiorik hauteman bere erregistroetan, urte hasierako %0,6tik abenduko %0,3ra igaro zelako. Azken tasa hori 2015eko lehen lau hilekoetara luzatu da. Urteko batez bestekoan ere, aldagai horren gehikuntza %0,3 izan zen, indize orokorrak jaso zuen datutik (%0,2) oso hurbil dagoela. Hondar inflazioak (energia eta elikagai freskoak), berriz, prezioak jaitsi zituen berriro, baina %0,1 baino ez. Produktu horiek gorabehera handiak izaten dituzten arren, urteko batez bestekoan ia ez zuten inolako aldakuntzarik izan.

Talde berezi guztiek parte hartu zuten azpiko inflazioaren moteltzean. Beherakada handiena elikagai landuen taldeak jaso zuen, beraren aldakuntza tasa aurreko urteko %3,1etik 2014ko %0,0ra apaldu zuelako, lehengaiak eta nekazaritzako salneurriek nazioarteko merkatuetan erakutsi zuten beheranzko bilakaeraren ondorioz. Zerbitzuen taldeak, berriz, 1,2 puntu jaitsi zuen bere emaitza, aurreko urteko %1,8tik 2014ko %0,6ra, eskariaren ahultasunaren ondorioz. Azkenik, industriako ondasunen taldearen hazkundera %0,1 baino ez zen izan, martxan jarri ziren PIVE egitasmoek lagunduta.

KPIa osatzen duten taldeak aztertuta, adierazi behar da haietako bostek urteko tasa negatiboak jaso zituztela. Komunikazioen taldeak apaldu zituen gehien bere salneurriak (%-6,1), jarduera horretan dagoen lehia biziaren eta teknologian lortzen diren etengabeko aurrerapenen ondorioz. Aisia eta kultura biltzen dituen taldeak ere prezioak jaitsi zituen 2014an (%-1,2), eskariaren bilakaerak osorik baldintzatuta. Garraioari dagokionez (%-0,5), jaitsiera erregaien eta gutxiago kontsumitzen duten ibilgailuak erosteko eman ziren diru laguntzen eskutik iritsi zen. Urteko batez bestekoa prezioak jaitsi zituzten gainontzeko taldeak elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%-0,6) eta etxeko tresneria (%-0,4) izan ziren.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA


Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Indize orokorra	0,3	1,7	3,1	2,3	1,6	0,2
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,1	-0,7	2,2	2,7	2,9	-0,6
- Edari alkoholik eta tabakoa	8,4	10,7	9,8	5,8	6,0	1,0
- Jantziak eta oinetakoak	-1,4	-0,2	0,3	0,2	0,1	0,2
- Etxebizitza	1,9	3,1	7,8	5,7	1,1	2,0
- Etxeko hornidura	1,8	0,9	1,5	1,1	2,0	-0,4
- Medikuntza	-0,2	-0,1	-0,6	-0,7	7,5	4,3
- Garraioa	-5,3	6,5	7,7	4,3	0,3	-0,5
- Komunikazioak	-0,6	-0,7	-0,8	-3,4	-4,3	-6,1
- Aisia eta kultura	0,3	-0,9	0,3	1,0	1,6	-1,2
- Irakaskuntza	4,2	2,2	1,3	2,8	3,0	2,7
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	2,4	1,7	1,7	1,0	1,1	0,7
- Besteak	2,5	2,1	2,7	2,4	2,1	1,2


Iturria: INE.

KPIren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Indize orokorra: EAE




Indize orokorra: Europar Batasuna



Azpiko inflazioa: EAE



Azpiko inflazioa: Europar Batasuna




Iturria: INE eta Eurostat.

Aitzitik, gehien garestitu ziren taldeak medikuntza (%4,3) eta hezkuntza (%2,7) izan ziren, lehen kasuan botiken koordainketaren eraginak oraindik gora bultzatu zituelako talde horren prezioak, eta bigarrenean unibertsitateko tasen igoeraren ondorioz. Bai kasu batean bai bestean, 2014ko gehikuntzak merkatutik kanpoko arrazoiek eragin zituzten, administrazio publikoak hartutako neurrien ondorioz igo zirelako. Gainontzeko taldeek gehikuntza apalak jaso zituzten. Beraien artean, edari alkoholodunak eta tabakoarena nabarmendu behar da,

2014ko garestitzea (%1,0) aurreko urteetakoak baino askoz ere txikiagoa izan zelako, zergen igoeren eragina desagertu zen heinean.

Prezioen beheranzko bilakaerak Eurogunearekiko inflazio tartearen zeinua aldatu zuen. Izan ere, 2013an EAEko KPIa Europakoa baino bi hamarren gehiago hazi bazen ere, 2014an bi lurraldean arteko aldea hiru hamarrenekoa izan zen, baina EAEn aldekoa. Are gehiago, 2015eko lehen hilekoetan diferentzia areagotu da. Dena dela, produktu talde batzuek oso portaera ezberdina erakutsi zuten lurralde batean eta bestean. Mutur batean, komunikazioen prezioak Europan ere merkatu ziren, baina EAEn baino gutxiago, eta beraien arteko diferentzia hiru puntukoa izan zen. Beste muturrean, botiken koordainketak igoera handia, baina iragankorra, eragin zuen medikuntza taldean, Europako prezioetan gertatu ez zena. Hezkuntzan ere, EAEko igoera Europakoa baino handiagoa izan zen.

EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2014ko batez besteko balioak



Iturria: INE eta Eurostat.

Industriako prezioei dagokienez, aurreko urteko moteltzeak jarraipena izan zuen 2014an ere, petrolio gordinaren salneurriak osorik baldintzatuta. Zehatz-mehatz, urteko batez besteko aldakuntza %-1,1 izan zen, aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa. Indize orokorraren osagai guztiek salneurriak jaitsi zituzten, bereziki energiaren atalak (%-3,6), petrolioaren prezioak baldintzatuta. Energiak bezala, bitarteko ondasunek ere beherakadak jaso zituzten, bigarren urtez jarraian, baina talde horretako jaitsierak nabarmen txikiagoak dira. Ekipamendurako ondasunen prezioak, berriz, %0,4 murriztu ziren, hainbat urtez igoera neurritsuak jaso ondoren. Azkenik, kontsumoko ondasunak %0,2 merkatu ziren, ondasun iraunkorren jaitsierarengatik.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA


Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Indize orokorra	-6,0	3,3	8,1	2,4	-0,7	-1,1
- Kontsumoko ondasunak	0,5	0,2	3,1	1,8	0,1	-0,2
- Kontsumo iraunkorrak	0,1	-0,4	0,6	0,5	0,2	-1,2
- Kontsumo iragankorrak	0,6	0,5	4,0	2,3	0,0	0,1
- Ekipamendu ondasunak	1,4	0,1	1,5	1,2	1,3	-0,4
- Bitarteko ondasunak	-7,9	3,1	6,5	0,2	-1,4	-0,7
- Energia	-14,6	11,7	21,7	7,8	-1,8	-3,6

Iturria: Eustat.

Prezioen bilakaerak eragin handia izan zuen langile bakoitzeko lan kostuetan 2014an, aurreko urteetako moteltzea areagotu zutelako, urteko batez besteko balioa negatiboa izan arte, serie historiko osoan lehenengo aldiz. Hain zuzen ere, kostuak %1,0 gutxitu ziren, INEk ezagutarazi duen informazioaren arabera. Kostuen jaitsiera ez zen homoginoa izan sektore guztietan, eta zerbitzuetan bakarrik gauzatu zen, %-1,9ko aldakuntza jasota. Aitzitik, industrian (%1,1) eta eraikuntzan (%3,4) kostuak handitu ziren. Kostuen analisiak agerian uzten du antzeko jaitsierak gertatu zirela soldaten kostuetan eta gainontzeko kostuetan, bi multzoetan murrizketa %1,0 izan zelako. Lan egindako ordu bakoitzaren kostua are gehiago murriztu zen eta beraren aldakuntza %-1,9an kokatu zen. Estatistika horretan ere soldata kostuek eta gainontzeko kostuek antzeko portaera erakutsi zuten.

Lan kostuen bilakaera langile bakoitzeko
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE.

Azkenik, EAEko negoziazio kolektiboak oso estaldura txikia izan zuten berriro eta langile askok berriro gabe eduki zuten lan hitzarmena. Oro har, adostu zen soldaten igoera %0,7 izan zen, aurreko urteetako baino nabarmen txikiagoa, negoziazio kolektiboan igoera apalak adostu zirela agerian utziz. Hala ere, langileek erosteko ahalmena zertxobait handitu zuten, inflazioaren 2014ko igoera %0,2ra mugatu zelako.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Indarrean dauden hitzarmenak	2,7	1,9	3,6	2,7	1,3	0,7
- Urtean zehar sinatutakoak	2,8	1,7	3,4	2,0	1,0	0,5
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	2,8	1,7	3,8	2,7	1,3	0,8
- Enpresako hitzarmenak	2,6	2,4	3,1	2,6	1,2	0,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien eragiketa bateratuei dagokienez, adierazi behar da aurreko urteetan martxan jarri zen defizita murrizteko politikak jarraipena izan zuela 2014. urtean ere, eta lortutako aurrezki gordina aurreko urtekoa baino nabarmen handiagoa izan zela. Aurrezki gordinaren gorakada hori, batez ere, diru sarrera arruntek lortutako bilakaera onaren ondorioa izan zen, %4,1 hazi zirelako, bi urtez jarraian beherakadak jaso eta gero. EAEko ekonomiaren susperraldia da diru sarreren gehikuntza hori azaltzen duten arrazoietakoa bat.

Gastuak ere handitu ziren 2014. urtean, baina diru sarrerak baino gutxiago. Gastu arruntak %3,0 hazi ziren, bereziki transferentzia arruntak (%3,4) eta gastu finantzarioak (%10,8), nahiz eta azken horiek oraindik guztizkoaren zati txiki bat diren. Kapitaleko gastuak (%-1,3) zertxobait murriztu ziren, eta kapitaleko transferentzien hazkundera (%22,0) inbertsio errealen antzeko beherakada batek (%-23,8) konpentsatu zuen.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

Mila euro

	2014	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2009	2010	2011	2012	2013	2014
1. SARRERA ARRUNTAK	13.384.650	-9,9	2,5	3,9	-1,2	-2,3	4,1
2. GASTU ARRUNTAK	12.607.480	3,2	-2,8	1,8	-4,6	1,1	3,0
Langileen gastuak	2.233.966	6,3	-0,6	-0,5	-6,4	4,3	1,3
Funtzionamenduko gastuak	3.799.599	10,4	-0,3	0,1	-2,2	-1,6	2,7
Finantza gastuak	326.097	1,3	79,5	70,9	22,3	9,4	10,8
Transferentzia arruntak	6.247.818	-1,5	-6,0	2,3	-6,5	1,3	3,4
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	777.170	-123,7	199,8	81,4	70,9	-41,9	27,6
4. KAPITALEKO SARRERAK	348.364	16,0	84,8	54,9	35,6	-6,5	-19,3
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.323.918	14,0	-1,1	-22,8	11,3	-32,3	-1,3
Inbertsio errealak	520.583	4,7	-1,0	-13,2	-12,1	-9,6	-23,8
Kapitaleko transferentziak	803.335	22,2	-1,1	-30,0	33,0	-46,4	22,0
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	-198.384	-392,7	31,5	52,7	42,8	36,4	-34,1

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Aurrezki gordinari kapitaleko diru sarrerak gehituz eta kapitaleko gastuak kenduz, finantzazio beharra lortzen da, 2014an 200 milioi eurora hurbildu zena. Zenbateko hori aurreko urteko beharra baino %34,1 txikiagoa da, eta amaiera eman zion aldagaiaren etengabeko igoeren lau urteko epealdi bati.

Zergen bidezko diru bilketari dagokionez, EAEko ogasunen diru sarrerek bilakaera ona izan zuten 2014an eta aurreko urteko susperraldia finkatu zuten. Hain zuzen ere, itundutako zergen bidezko diru bilketa %4,8 areagotu zen 2013ko emaitzaren aldean, hala zuzeneko zergek nola zeharkako zergek goranzko bilakaera erakutsi zutelako. Lehen taldean, bildutako dirua %1,2 handitu zen eta zeharkakoetan, berriz, gorakada %9,1era iritsi zen. Ekonomia jarduerak urratsez urrats lortu zuten susperraldia eta barne eskariaren hazkundera daude bilakaera on horren atzean.

PFEZk ere, bildutako diruari dagokionez zuzeneko zergen osagai garrantzitsuenak baita, hobekuntza hori islatu zuen eta %2,9ko gehikuntza tasa lortu zuen 2014an, aurreko bi urteetako hazkunderak gaindituz. Zergaren gorakada lanaren eta lanbide jardueren etekinen atxikipenetan gauzatu zen, %1,8ko igoera jaso baitzuten. Kuota diferentzialak ere lagundu zuten goranzko bilakaera horretan, aurreko urtean baino %6,9 gutxiago itzuli zuelako. Hala eta guztiz ere, PFEZren beste osagai batzuek diru gutxiago bildu zuten. Esate baterako, kapital higigarriaren etekinen atxikipenak %8,7 murriztu ziren eta kapital higiezinaren etekinenak, berriz, %3,3.

Aitzitik, zuzeneko zergaren beste osagai handiak, hots, sozietateen gaineko zergak, balio negatiboak (%-4,7) jaso zituen, 2013ko gehikuntza nabarmenaren ondoren. Jaitsiera horren zati handienaren arrazoia 2013an lortu zen ezohiko diru bilketa da, balantzeak eguneratzeko arau berriaren ondorioz. Arau horretaz baliatu ziren enpresek aukera izan zuten aktibo jakin batzuen balioa eguneratzeko.

Zeharkako zergen multzoan, zerga garrantzitsuenak balio positiboak erakutsi zituen bi ataletan. Izan ere, bertan kudeatutako BEZak %13,2ko gehikuntza esanguratsua aurkeztu zuen eta zerga horren doikuntza %8,5 hazi zen, kontsumoko prezioen egonkortasunak oinarri zergagarriak igotzea galarazi zuen arren. Halere, kontsumoaren 2014ko hazkunde biziak zergaren diru bilketa lagundu zuen. Ondare eskualdatzeen gaineko zergak (%25,5), berriz, atzean utzi zuen aurreko hiru urteetan bizi zuen diru bilketa gero eta txikiagoa.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2014	2009	2010	2011	2012	2013	2014
PFEZ	4.390.205	-12,1	3,8	6,3	0,2	-1,5	2,9
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.401.917	-3,6	3,4	3,2	-1,0	-1,8	1,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	196.337	-14,7	-15,6	-3,0	11,0	-11,1	-8,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	83.322	13,4	2,7	3,1	3,0	-1,8	-3,3
- Ondare irabazien atxikipenak	33.210	-56,3	4,8	-19,0	36,1	47,6	11,9
- Esp. zergak hainbat loteria sarien gain	33.797						
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	140.166	-6,4	-1,5	-3,6	-1,9	-5,1	-2,6
- Kuota diferentzial garbia	-498.544	-68,5	6,1	17,7	3,8	7,2	6,9
Sozietateen gaineko zerga	1.159.223	-27,2	-19,9	17,5	-2,5	7,5	-4,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	196.337	-14,7	-15,6	-3,0	11,0	-11,1	-8,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	83.322	13,4	2,7	3,1	3,0	-1,8	-3,3
- Ondare irabazien atxikipenak	33.210	-56,3	4,8	-19,0	36,1	47,6	11,9
- Esp. zergak hainbat loteria sarien gain	80						
- Kuota diferentzial garbia	846.274	-31,6	-23,7	27,3	-7,2	13,3	-4,5
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	9.593	-39,4	15,6	-37,5	-60,1	31,6	-77,8
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	112.358	-2,1	-11,9	9,4	16,1	17,7	6,6
Ondarearen gaineko zerga	152.456	-72,6	-92,7	-5,8	---	19,6	10,4
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	12.299						
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko	28.217						15,1
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.864.350	-18,3	-2,5	7,3	1,0	1,7	1,2
BEZaren bertoko kudeaketa	3.555.395	-13,0	26,1	-10,9	-4,4	6,0	13,2
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	90.234	-17,7	28,0	-49,4	-18,9	-10,0	25,5
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	36.600	-17,6	-15,0	-27,8	-29,4	-6,9	-4,9
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	14.913	-24,5	-7,6	-27,9	-29,9	-21,4	9,3
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.556.600	-1,4	2,1	-8,3	0,9	10,7	0,9
Aseguru sarien gaineko zerga	70.216	-5,5	4,3	1,8	-4,6	-3,8	-1,1
Joko jardueren gaineko zergak	7.674						
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	821						
Iraungitako zergak	298	-3,1	-4,2	-1,9	0,4	-74,7	-97,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.332.752	-9,8	16,7	-11,7	-3,6	5,9	9,1
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	103.970	-11,2	9,1	0,1	-0,4	3,5	-8,5
BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK	11.301.072	-14,6	6,4	-2,3	-1,1	3,5	4,7
BEZaren doikuntza	1.236.276	-29,6	34,9	-3,8	7,8	5,9	8,5
Zerga berezian doikuntza	-217.585	7,3	-9,4	52,6	-57,4	-96,0	-18,9
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.319.763	-15,9	8,4	-1,9	-0,6	3,0	4,8

Iturria: Foru Aldundiak.

Azkenik, fabrikazioaren zerga bereziak %0,9 hazi ziren 2014an, baina zerga berezien doikuntzak gehikuntza txiki hori ezabatu zuen, urte horretan %18,9 jaitsi zelako. Zerga multzo horren barnean, hidrokarburoengatik diru bilketa gehitu zen (%1,0), baina diru bilketa horrek gelditzeko joera hartu zuen, gasolinaren eta gasolioaren kontsumoa areagotu zen arren. Tabako laboreen gaineko zergak ere hazkunde garrantzitsua (%5,7) lortu zuen 2014an, aurreko urtean gutxiago bildu ondoren. Aitzitik, argindarraren gaineko zergak behera egin zuen nabarmen (%-16,3), handizkako merkatuaren prezioak beheratu zirelako eta argindarra intentsiboki kontsumitzen duten industriaren sektoreei zergaren %85eko salbuespena eman zitzaielako.


Finantza arloa

2014an, finantza merkatuetako hegakortasuna eta arriskua saihesteko asmoa, oro har, txikiak izan ziren, baina urte hasieran eta urrian gorabehera handiko hainbat une bizi ziren, munduko ekonomiaren susperraldiaren sendotasunari eta erritmoari buruz zalantzak agertu zirelako. Finantza merkatuetako tentsioek desoreka handiak, hala barnekoak nola kanpokoak, zituzten azaleratzen ari diren ekonomiei eragin zien bereziki, eta, aitzitik, oso eragin txikia izan zuten Eurogunean eta munduko ekonomiaren multzoan. Moskuk eta Europar Batasuneko herrialdeek elkarri ezarri zizkieten merkataritza zigorrek eta Portugaleko Banco Espiritu Santoren arazoek ere ez zuten nazioarteko merkatuaren bilakaera ona zapuztu, eta burtsaren indizeek gehieneko balioen guneari eutsi zioten, eta arriskurik gabeko interes tasak gutxieneko balioetan kokatu ziren.


Izan ere, denbora luzez oso apal egon ziren interes tasek, espainiar kredituaren kalifikazioaren egonkortasunak eta ekonomiaren emaitza onek Espainiako bonoen eskaria nabarmen areagotu zuten. Zehazkiago adierazita, Espainiako zor publikoak Alemaniakoaren aldean duen arriskua neurtzen duen gainkostua bat-batean hustu zen 2014ko hasieran eta 20 oinarri puntu baino gehiago jaitsi zen, lehenengo aldiz 2011tik 200 oinarri puntuen azpitik kokatuz. Harez geroztik, eta ekonomiaren emaitza onak argitaratu ziren heinean, beheranzko joera hori areagotu zen, 2014ko amaieran ordura arte inoizko baliorik txikienean kokatuz, %1,69ko atalasearen azpian. Halaber, Alemaniako bonuarekiko diferentzial baliokidea 110 oinarri puntuen azpitik kokatu zen.

Bund alemaniarrekiko gainkostua
Ehunekoak


Espainia




Italia



Grezia



Portugal



Iturria: Espainiako Bankua.

Periferiako beste herrialde batzuen arrisku sariak ere, hala nola Italiarenak edo Portugalenak, hobekuntza esanguratsuak lortu zituzten, krisian zehar diferentzial handiek nabarmen zigortu eta gero. Europako Banku Zentralaren deflazioaren arriskuari aurre egiteko eta eremuaren susperraldi ekonomiko ahula indartzeko bideratu zituen pizgarri berriek animoak eman zizkien inbertitzaileei dirua errentagarritasun handiko zorrean inbertitzeko, periferiako finantzazio kostuak horren zaugarriak ez diren beste herrialde batzuen aldean murriztuz. Zehazkiago,

Italiak 81 puntutan gutxitu zuen bere gainkostua 2014an zehar, eta Portugalek 195 puntutan, herrialde horretako hirugarren bankuaren erreskateak ezegonkortasuna piztu zuen arren. Greziako bonuaren bilakaera guztiz aurkakoa izan zen. Bertako ekonomiaren egoerak sortu zuen ziurgabetasunak eta ezegonkortasun politikoak Greziako bonuaren ibilbideari kalte egin zioten, eta 2011ko abendutik 2013ko abendura bitarteko epean diferentziala 2.550 puntu baino gehiago jaitsi ondoren, 2014ko amaieran 243 puntu handitu zen.

Krisia hasi zenean, ekonomia garatueta banku zentral nagusiek eskariaren aldetiko politika sorta bat jarri zuten martxan. Likidezia masiboki sartu zuten sisteman eta interes tasa ofizialak jaitsi zituzten. Izan ere, krisiaren lehen uneetan, Europako Banku Zentralaren (EBZ), Erreserba Federalaren, Japoniako Bankuaren eta Ingalaterrako Bankuaren erabakiak, oro har, bat etorri ziren, baina handik denbora batera bide ezberdinak hartu zituzten.

Zehazkiago adierazita, deflazioaren arriskuak eta ekonomiaren ahultasunak Europako Banku Zentrala eta Japoniako Bankua behartu zituzten suspertzeko neurri gehiago hartzera. Esate baterako, EBZk interes tasak inoizko maila txikienera (%0,15) murriztu zituen, eta gordailuetarako interes tasak, lehenengo aldiz, zeroaren azpitik (%-0,10) kokatu zituen. Orobat, epe luzerako likidezia programa bat zehaztu zuen bankuek enpresa txiki eta ertainei kreditu gehiago eman diezaieten. Japoniako Bankuak, berriz, bere horretan utzi zuen bere moneta politika ezin malguagoa, 2013ko apirilean abiatu zena. Politika horren helburua 2015ean %2aren inguruko urte arteko inflazio egonkorra lortzea da, bi hamarralditan bizi duten prezioen etengabeko jaitsieraren aldiari amaiera emateko. Halaber, moneta hedaldi kuantitatibo eta kualitatiboko programa 80 bilioi yenetara zabaldu zuen, aurrekoa 60-70 bilioi yenekoa zen bitartean.

Aitzitik, Erreserba Federalak 2014ko urrian amaiera eman zion ekonomia pizgarrien bost urte eta 10 hilekoko epealdiari, bertako ekonomiak erakutsi zituen sendotasuneko zantzuak ikusita, eta merkatuan likidezia sartzeko asmoz zor pribatua eta publikoa erosteari utzi zion. Halaber, ekonomiaren hobekuntzaren ondorioz, interes tasen igoerak (2008ko abendutik %0aren eta %0,25aren arteko urkila batean baitaude) 2015eko hirugarren hiruhilekoa baino lehen gertatu daitezkeela iragarri zuen. Azkenik, Ingalaterrako bankuak ez zuen inolako aldaketarik erabaki bere moneta politikan eta, ekonomia sendo egon arren, erreferentziako tasak %0,5ean eta zorra erosteko programa 375.000 milioi libratu utzi zituen, aldatu gabe.

Beste aldetik, garapen bidean dauden herrialdeetan, inflazioaren presioak etengabe areagotu ziren eta bertako banku zentralak behartuta zeuden moneta politika murriztaileko estrategiak

garatzera, kredituaren hazkundera kontrolatzeko eta ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko. Nabarmenezkoak dira Brasileko Bankuaren gehikuntzak, erreferentziako tasa 1,75 puntu igo zituelako, %11,75era arte, eta Indiako Banku Zentralarenak, esku-hartze tasa %8,0an kokatu zuelako.


Euroak bi norabide kontrajarri hartu zituen 2014an zehar. Maiatzaren hasiera arte, euroak balioa irabazi zuen dolarraren aldean, 2012ko uztailan hasi zuen joerari jarraipena emanaz. Harez geroztik, eta Europako Banku Zentralak (EBZ) iragarri zuen ez-ohiko neurrien sortarekin bat eginez, euroaren eta dolarraren arteko truke tasa estatubatuar dibisaren alde lerratu zen. Bi banku zentralen politiken arteko alde handiek eta beraien ekonomien hazkunde erritmo ezberdinek euroaren balio galera gutxika-gutxika baina etengabe eragin zuten, 2014ko abenduan 1,23 dolarretan trukatzera iritsi baitzen, 29 hilekoetan izan duen baliorik txikiena delarik. Hala eta guztiz ere, diru bakarrak ez zuen balioa galdu dolarraren aldean bakarrik. Beste dibisa batzuekin alderatuta ere gutxiago balio zuen, esate baterako libera esterlinarekiko truke tasa 0,79 liberatarra jaitsi zen, krisia hasi baino lehen izan duen baliorik txikiena delarik. Dolarrari lotutako dibisekin ere ahuldu zen euroa, baita txinatar yuanarekin ere (%-10,2). Aitzitik, balio apur bat irabazi zuen yenaren aldean (%0,4).

Errenta aldakorreko merkatuek hazkunde sendoak lortu zituzten 2014an zehar, baina urtearen erdialdean tentsio geopolitikoak areagotu zirenean eta munduko susperraldiaren sendotasunaz kezka hedatu zenean, burtsa merkatuek hauteman zuten, bereziki Eurogunekoek. Halere, burtsa nagusiek hegakortasuneko aldi horiei aurre egin zieten eta irabazi garrantzitsuak izan zituzten urte amaieran. Esate baterako, S&P500 indizeak %11,9ko gehikuntza lortu zuen, Japoniako Nikkeik %18,5 eta Euroguneko Eurostoxx50 indizeak %11,2 handitu zuen bere kotizazioa. Azken horren gorakada garrantzitsua izan zen arren, oraindik 2007an zeukan mailaren %13 beherago zegoen. Azaleratzen ari diren herrialdeetan ere igoera garrantzitsuak gertatu ziren. Adibidez, Indiak, Indonesiak eta Turkiak %20aren inguruko balio irabaziak eskuratu zituzten, herrialde horietara kapital gehiago iritsi zelako.


Europako Banku Zentralak abiatu zuen politika laxoa bankuen arteko merkatura igaro zen, interes tasak berriro beheratuz. Zehazkiago adierazita, urtebete baterako euriborra inoizko baliorik txikienean amaitu zuen 2014. urtea, %0,329an, hain zuzen ere, aurreko urteko emaitzaren aldean 0,214 puntu jaitsita. Martxoan eta apirilean bizi zuen igoera txiki bat izan ezik, adierazle horrek beheranzko joera garbia erakutsi zuen urte osoan zehar, esku-hartze tasaren jaitsieraren ondoren areagotu zena.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yena




Iturria: Espainiako Bankua.

Kredituaren bilakaera oso ahula izan zen, joera aldatzen ari zelako lehen zantzuak hauteman ziren arren, finantzaziorako baldintzak lasaitu zirelako. Familiei emandako maileguetan nolabaiteko hobekuntza nabaritu zen arren, hori ez zen nahiko izan finantzaz bestelako sozietateei emandako kredituen fluxu negatiboak konpentsatzeko. Edozein modutan, familiei eta enpresei emandako maileguen baldintzak oraindik murriztaileak izan ziren, eta EBZren

moneta politika egokitzaila zen arren, banku kredituen interes tasek ez zuten neurri berean erantzun interes tasa ofizialen aldaketei, eta nahiko maila altuetan jarraitu zuten.

Urte baterako euriborraren bilakaera



Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarte.


Aurreko guztiarengatik, eta errentaren hazkundera oraindik ahula zelako eta langabezia tasa, berriz, altua zelako, EAEko arlo pribatuari emandako kredituak %7,6 murriztu ziren. Tasa horrek adierazten du arlo pribatuak zorpegabetezko joerari segida eman ziola eta zorraren kopurua 63.168,7 milioi eurotan kokatu zuen, 2006ko erdialdetik jaso den zenbakirik txikiena delarik. Izan ere, krisia hasi zenetik, arlo pribatuak 22.222 milioi eurotan baino gehiagotan gutxitu du bere zorpetze maila. Zorraren beheakada garrantzitsu horrek berankortasuneko tasa jaitsarazi zuen, %8,42an kokatuta, 2013an zegoena baino puntu erdi bat gutxiago. Tasa hori oraindik altu samarra da krisiaren aurretik zegoen tasarekin (%0,88) alderatzen bada, baina azken sei urteko lehen jaitsiera da.

Espainiako Bankuak gomendatu zuen banku gordailuen interes tasa %1,75 baino gehiago ez izatea urtebete bateko epeetan, %2,25 urtebete batetik bira doazen epeetan, eta %2,75 bi urtetik gorako epeetan. Horren ondorioz, aurrezkoa gordailuetatik inbertsio funtsetara joan zen nabarmen, azken urteko errentagarritasuna %6,0aren ingurukoa izan zelako. Izan ere, eta hiru urtez jarraian jaitsierak bildu ondoren 2013an gorakada bat izan bazuen ere, gordailu pribatuak


%2,3 murriztu ziren. Zehazkiago, eperako gordailuen bilakaera txarrak (gordailu guztietatik %49,2 dira horiek) baldintzatu zuen jaitsiera, %10,3 baino gehiago gutxitu baitziren. Aitzitik, ageriko eta aurrezki gordailuek hazkundera lortu zituzten.

Kredituen eta gordailuen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.